

**Zaharrak**

Bakardadearen
zama astuna

Iban Zaldúa

*Biodiskografiak
ipuin liburuaz*

«Pop kanta
askoren letrak
nahiko ergelak dira,
musikak
salbatzen ditu»

**Santiago
Alba Rico**

filosofoa

«Tartean NATO
sartzea zoritxarreko
erabakia izan da,
bai libiarrentzat
eta baita
erreboltarentzat
ere»

Jose Manzaneda

Euskadi-Cuba
elkarteko kidea
Ekonomia eta
ingurumena
orekatzeko
formulez

MARTIN GARITANO

Gipuzkoako ahaldun nagusia

**«Errauskailuaren moratoriaz
adostasuna lor liteke,
baita Batzar Nagusietan ere»**



3. Euskal Herriko zikloturista itzulia

2011

Uztaila

Julio

Juillet

2-3



IRATI KO TOURRA
- martxa zikloturista -

Prueba cicloturista del Pais Vasco
Randonée cyclotouriste du Pays Basque

MAULE (Zuberoa) Euskal Herria

IZEN-EMATEA/INSCRIPCIÓN/INSCRIPTION

www.iratikotourra.com

www.sam.mauleon.com



Antolatzaileak:

Babesleak:




esait

Euskal Selekzioaren
Aldeko Iritzi Taldea



Maule Herria





Azaleko argazkia:

DANI BLANCO

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko uztailaren 3a, 2.283. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Goizalde Landabaso:** «Eskatu izan didate Sarriionandia elkarrizketatzeko telefonoa». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Adinekoen aurkako tratatu txarrak.** Etxean bakarrik eta menpeko. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 5

Pertsonaia

- **Agurtzane Beaskoetxea:** «Erbestetik etorri ginenean, kendua ziguten Bilboko etxea!». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Gaiak

- **Jose Manzaneda, Euskadi-Cubako kidea:** «Garapen jasagarria sozialismoaren bidetik bakarrik da posible». UNAI BREA / 15

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Alaitz eta Maiderren itzuleraren alde. BEÑAT SARASOLA / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Kolegak.** XABIER ETXANIZ ERLE / 20
- **Txandan** Eta hi gehiago! JUANRA MAKUSO / 20
- **Adi.** DABID ANAUT / 21
- **Hiruko txikian** Normaltzen. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertso berriak** Aurore Martini jarriak. JOANES ETXEBARRIA / 22

Erdiko kaiera

- **Iban Zaldia** «Liburu hau nire bizitzako soinu-banda da hein batean». MIEL A. ELUSTONDO / 23
- **Liburuak** X. ETXANIZ ERLE / 26 • **Diskoak** I. BARANDIARAN / 27
- **Ezpalak** JON TORNER / 28 • **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 29
- **Ihesi Zuiako Koadrila (Araba).** Naturaz, ikusi eta ikasi. AMAIA UGALDE / 30
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

Termometroa

- **Martin Garitano:** «Aldaketak zergatik izan behar du beldurgarria?». URKO APAOLAZA / 37
- **Santiago Alba Rico:** «Arabiar munduaz genuen irudia kolokan dago». ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN / 42
- **Jokin Melida:** «Arantzako barnetegian egin nuen topo benetan euskal munduarekin». MIKEL GARCIA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Txetxeniako nork hil zuen Natalia Estemirova? PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Abarkategikoak.** ITXARO BORDA / 50



“Eskatu izan didate Sarrionandia elkarrizketatzeko telefonoa”

Goizalde Landabaso I
Korte bat, mesedez

Inork ez zigun esan irratiko euskaldun izatea zein nekeza den.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Iñigo Azkona

Azkenean, aurkitu dut: hemen Bilboko euskalduna!

Zorionez asko gara euskaldunak Bilbon. Luzatzen dizut hiria bisitatzeko gonbitea, zizerone bikaina naiz gero! Eta koaderno handia ekar ezazu aurkitzen ditugun euskaldunak apuntatzeko, harrituko zaitu.

Beste hau izan zitekeen hasiera: hemen Radio Euskadiko euskalduna!

Hemen ere esan behar dizut euskaldun bakarra ez naizela, zorionez. Egia da gero airean beharbada ez dela igartzen, euskarak leku gehiago izan beharko lukeela, bai; baina nik barruko harremana euskaraz egiten dut asko-ekin.

Bietan ere itsasoa goldatzen, noski.

Euskaldun harroa sentitzen naiz, ez arraroa. Euskaldun militante izatera eramanez bizi-tzak, eta ametitzen dut. Ez dut erraz amore ematen. Batzuetan gogorra da, milimetroko garaipenak lortzen dira. Garaipenak edozelan ere, eta hori da garrantzitsuena.

Ezizena aspaldi jarriko zizuten: La vasca.

La vasca inoiz esan didate, baina gutxitan. Garai batean “aborigen” hitza erabiltzen nuen, umorez.

La vasca que ríe, beraz.

Bai, nik umore handia daukat. Denborarekin uste dut apur bat garraztu zaidala, baina munduari barre egiten diot askotan, eta

horrek salbatzen nau. Umore barik hau, eta mundua oro har, eramanezina litzateke.

Idatzi izan duzu irratirako euskaraz aritzearen zailtasunez.

Hau istorio amaibakoa izan liteke: prentsaurrekoetan borrokatu behar duzu euskaraz adierazpenak lortu, euskaldunak aurkitu, informazioa profesionaltasunez jasotzeko, gutxienez, beste hizkuntzetan lan egiten duten kazetariak adina.

Liburu aurkezleen artean Sarri nor den galdeztera iritsi zaizkizu...

Bai, eta bera elkarrizketatzeko telefonoa eskatu izan didate. Erdal munduarentzat euskarazko mundua Jupiter da, eta okerrera da, maiz, Burundiko kultura hurbilago sentitzen dutela. Unibertso oso bat galtzen dute eta oraindik ez dira jabetu.

Euskarazko mundua Jupiter eta euskaldunok estralurtar.

Estralurtar izateak ere badauka bere xarma. Gustatuko litzaidake euskalduna estralurtar ezaguna balitz, hori ondo legoke.

Ikusiko ote dugu guk Radio Euskadirik beharko ez dugun eguna!

Nahiago nuke hainbeste euskaltegi eta bar-netegi beharrezkoak ez diren eguna ailegatu-tuko balitz. Horrek izugarri poztuko ninduke. Eta denborarekin ikusiko dugu, seguru nago. ■

Adinekoen aurkako tratu txarrak

Etxean bakarrik eta menpeko

Adineko hainbat pertsonak egoera zaila bizi du egunerokoan, beraien beharretara moldatu gabeko etxeetan bizi direlako eta senideek, gauzak erraztu beharrean, gogor tratatzen dituztelako. Etxean bizi diren adinekoek jasaten dituzten tratu txarrei buruzko ikerketa plazaratu du Eusko Jaurlaritzak.

IRATI SARASUA ARABAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco



“EA BEHINGOZ HILTZEN ZAREN eta bakean bizitzen uzten gaituzun!” edo “ezin duzula hori egin? Bai, egin dezakezu, baina alferra zara!” entzuteak gogorra izan behar du. Adineko pertsonen seme-alaben ahotik entzun izan dituzte halakoak gizarte laguntzaileek.

Argi dago, hori ez da ohikoena, ez du islatzen gizartearen dauden hirugarren adineko pertsona gehienek bizi duten egoera, baina ez

dira kasu bakanak ere. Eusko Jaurlaritzak egin duen *Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen aurkako tratu txarren prebalentziari buruzko azterlana*-ren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 13.249 pertsona inguru bizi litezke antzeko egoerak pairatuz. Hona azterlanaren emaitzek islatutakoa.

Bakardade eta traba sentimenduak. Bizitzaren azken urteetan askok bizkar gainean

eraman behar duten zama da. Pertsona aktiboak izatetik euren burua traba moduan ikusteratzen dira, eta seme-alaben jarrerak sentipen hori areagotzen die gainera.

Milaka adineko bakarrik bizi dira beraien beharretara ongi moldatu gabeko etxeetan, diru-laguntza eskasarekin eta senideen bisita gutxi jasoz. Etxeko lanetan laguntzeko joaten diren gizarte laguntzaileak dira asteetan ikusten dituzten pertsona bakarrak. “Ez da ohikoena, baina batzuetan zaharren konfiantzazko pertsona bakarrak izaten gara, askotan gu garelako egunean ikusten dituzten pertsona bakarrak eta norbaiti azaldu behar diote barruan duten hori”, adierazi digu adinekoekin lan egiten duen gizarte laguntzaile donostiarrak.

Laguntzaileek gehienez hiru ordu pasa ditzakete edadetuaren etxean, eta bere egoe-

Egungo bizimoduak ez die familiei nahikoa denbora uzten adinekoak behar bezala zaintzeko. Zakar tratatzen dituzte, eta horrek karga moduan sentiarazten ditu edadetuak

raren arabera da da ordu kopurua. Esan bezala, laguntzailetik aparte bisita gutxi izaten dituzte batzuek, eta askotan bisita horiek ez dira behar bezain goxoak, hotzak baizik, edadetua arrotza bailitzan tratatuz. Bisitak ez izatearen arrazoia, Iñaki Abaunz psikologoaren ustetan, ez da senideen gogo falta, daramagun bizimoduarekin lotzen ditu bai bisita eskasia eta bai bisitetako jarrera desagokoa: “Gure bizimoduaren erritmoak ez du horretarako denbora ematen, bisita egiteak eta adineko pertsona bat zaintzeak gure egunerokoa guztiz hausten duelako”. Etxeko lanen, haurren eta lanaren ardurari, bikote harreman eta arazoei, gehitu behar zaie adineko pertsonen zaintza, eta egungo bizimoduak ez die familiei nahikoa denbora uzten adinekoak behar bezala zaintzeko, behar duten arreta eskaintzeko. Horregatik, goxotasunez eta lasaitasunez tratatu beharrean, zakar eta gogorik gabe zaintzen dituzte, eta horrek karga moduan sentiarazten ditu edadetuak.

Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren ikerketaren arabera, tratu txarren %50 –ohikoena– psikologikoak dira. Elkarrizketatu dugun gizarte laguntzailea bat dator azterketaren ondorio horrekin: “Gehienetan ez dituzte jotzen, baina jarrera ez da egokia izaten eta tratu txar horiek fisikoak baino okerragoak dira, inoiz sendatuko ez den zauria uzten dietelako”.

Hori guztia, noski, ez da lagungarri edadetuaren gogo-aldarte hobetzeko. Tristura, samina eta amorrua bezalako sentimenduak izaten dituzte maiz. “Ea egia den, laster hiltzen naizen eta horrela traba izateari uzten diodan!” moduko esaldiak entzun izan dituzte langileek. Egoera horretan, ezertarako gogorik gabe, beren kabuz mugitzeko gai direnak ere ez dira etxetik irteten, beharrezko gauzak egitera. Bazkalorduetan adibidez, lan gogorra egin behar izaten dute zaintzaileek, jan dezaaten lortzeko.

Menpekotasuna onartzea ez da batere erraza. Gogorra da aldaketa: beren burua pertsona aktibo gisa ikustetik, traba direla sentitzera igarotzen dira. Pertsona aktiboak zirenean, senideekin eta lagunekin denbora



Senideen jarrera ezberdina izaten da edadetuaren egoeraren arabera. Dependentsia maila handiena dutenak izaten dira okerren tratatuak, beraien zaintzak dakarrelako ardura handiena.

Etxean bizi diren adinekoei tratu txarrak (EAE)

EAEn 60 urtetik gorako **552.092** pertsona bizi dira.

Kalkulatzen da horietatik **13.249** direla tratu txarrak pairatzen dituztenak.

Tratu txar motak	Biktima eta bizi duen egoera	Tratu txar egilea eta arrazoiak
▶ Psikologikoa %50 ▶ Zabarkeria %20 ▶ Fisikoak eta sexualak %20	▶ Ezkongabea ▶ %72,6 emakumeak eta %27,4 gizonak ▶ Higiene falta ▶ Bizigarritasun arazoak etxean ▶ Ahaideekin, adiskideekin eta senitartekoekin harremanik ez ▶ Goibeltasuna, antsietatea, tentsioa eta zurruntasuna ▶ Premiazko baliabideak falta zaizkio	▶ Gizonezkoa (%75) ▶ Biktimaren seme-alabak, 40 urtetik gorakoak (%84) ▶ Denbora falta ▶ Tentsioa ▶ Beldurra ▶ Osasun arazoak ▶ Gizarte harremanetan arazoak ▶ Zaintza eskuz aldatzea nahi du ▶ Erruduntasun sentimendua ▶ Gainkarga



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Gizarte eta Enplegu Saila.

gehiago eman zezaketen, gustuko gauzak egiteko aukera zuten eta askok biloben zaintza ere bere gain hartzen zuten. Menpekotasun egoerak, berriz, ia egun osoan etxean egotera behartzen ditu, eta guztiz aldatzen da seme-alabekin eta bilobekin zuten harremana.

Tratu txarren sorrera

Menpekotasun egoeran egon aurretik adineko horiekin izandako harremanak pisua duela azaldu dute senide batzuek. Hala, errain eta suhiek sarri esan ohi diete gizarte laguntzaileei ez dutela pertsona hori zaintzeko gogorik, urtetan gaizki tratatu dituelako. Edonola, gurasoak menpeko direla ikusita, seme-alabek batzuetan zor zaien errespetua galtzen dietela uste dute zaintzaileek, agresibo jartzen direla hainbatetan, eta bisitan joaten direnean gurasoen kexuak entzuteaz aspertu eta denbora luzez berriro ez agertzeko erabakia hartzen dutela.

Faktore askok eragiten du halako jarreretan. Batetik, senideen nekea dago, urteak pasatzen baitituzte edadetuia zaintzen. Eta bestetik, familian aurretik pasatako gauzak daude. Askotan rolak aldatzen dituztela uste du gizarte laguntzaileak, seme-alabek aurretik jasotako tratua ematen baitiote gurasoei. Denbora luzean barruan izandako haserrea azaleratzen dute orain, pertsona edadetuak

euren kabuz moldatu ezin daitezkeenean. Baina badaude baita ere, guraso eta aitona-amona onak izan arren, bueltan tratu hori jaso ez dutenak.

Halaber, senideen jarrera ezberdina izaten da edadetuaren egoeraren arabera. Depen-

Etxe askotan ez da inolako berrikuntzarik egin 40 urtean, eta adinekoek arazoak izaten dituzte horregatik. Argazkiko makina arazo horiek saihesteko aukera bat da.



Zahar etxeetan ere, garrantzitsuak dira bisitak

Jaurlaritzaren azterketak ez ditu kontuan hartu zahar etxeak, baina egoitza hauetan ere, etxe partikularretan bezala, egunero adineko pertsonari eguna alaitzera gerturatzen diren senideak daude, astean edo hilean behin agertzen direnak, eta baita inoiz gerturatzen ez direnak ere. Horrek guztiak eragin zuzena du zahararren egoera animikoan. Bisita gutxi edo bat bera ere jasotzen ez dituzten pertsonak tristeago, haserretuago egoten dira. Aldiz, egunero ordubeteko ikustaldia jasotzen dutenak alaiago daude. "Oso egokia da, ordubetez bada ere, beraiekin egotea eta bakarrik ez daudela sentiaraztea", dio Gipuzkoan dagoen zaharren egoitza bateko langileak.

Askotan, bisitak jasotzen ez dituztenek inbidia izaten dute ingurukoek jasotzen dituztela ikusita, eta jarrera berekoa izaten dute. "Besteekin duten harreman eskasaren ondorioz beraien jarrera penagarria izaten da", dio langileak. Indarkeria arazoan atzean batzuetan maitasun falta dagoela sumatuta, familiakoei bisitan joateko eskatzen diete zaintzaileek, senideekin egon ostean zaharren

jarrera hobera aldatzen delako gehienetan.

Langileak aitortu digunez, zaintzaileek beraiek ez dute denbora soberan adinekoak zaintzeko: "Zaintzaileak gara, eta lana ahal dugun ondoen eta euren gustura egiten ahalegintzen gara, baina frustrazio guztia gurekin agertzen dute, zaila baita denekin asmatzea. Gu jotzen saiatzera ere heldu dira". Mundu guztia, dena den, ez dago

prestatuta edadetuak etxean izateko, langile honen iritziz: "Gure buruarekin ondo egon behar dugu horrelako pertsona bati laguntzeko. Ardura handia da, eta ondo prestatuta ez bazaude, oso gogorra egiten da. Guztia ondo antolatzen ez baduzu, ezin duzu aurrera eraman, eta orduan arazoak sortzen dira". Zahar etxeetan baliabideak dituztela dio, adinekoak hobeto zaintzeko eta psikologikoki ere ondo egon daitezen.



dentzia maila handiena dutenak izaten dira okerren tratatuak, ahulenak izanik beraien zaintzak dakarrelako ardura handiena eta lan gogorrena. Gehien sufritzen dutenak, ordea, dependentzia maila txikiena dutenak dira, guztiaz ohartzen direlako, eta egoera jasangaitza egiten zaie. Jendeak uste du adinekoak haurrak bezalakoak direla eta ez direla egoeraz ohartzen, baina ez da hala eta gizarte laguntzaileak haserretu egiten dira halakoak entzunda.

Asko daki zaharrek, erakutsi beharrik dio esaerak, baina hainbatetan badirudi ahaztu egin dela bere esanahia. Gizarteko jakitunak izatetik eta errespetua eta begirunea jasotzetik, mespretxatzeko eta baztertzeko joera nagusitu da maiz. Ondo dauden bitartean, bilobak zaintzeko ere baliatzen dituzte seme-alabek, baina garai hori amaitutakoan, karga moduan ikusten ditu jendeak eta gizarteak berak alboratzen ditu. "Askotan hurrek ere errespeturik gabe hitz

egiten diete, hori baita etxean ikusi dutena", dio gizarte laguntzaileak. Iñaki Abaunz psikologoak ere gauza bera uste du: "Familia kontzeptua erabat aldatu da, eta gaur egun familia esatean ez dugu eurekin kontatzen, edo gertuko familiaz ari garenean ez behintzat". Hori aldatu behar dela dio Abaunzek, urtetan eman diguten guztia itzuli behar diegula adinekoei.

Bestalde, ikerketak kontuan hartu dituen tratu txarrak ez dira bakarrik pertsonengandik etortzen eta ohartarazi du helduen beharretara moldatutako baliabideak faltan dituztela hainbat etxek. Esaterako, igogailua, eskailerak igo ezin dituenarentzat; dutxa, baineran sartzeko arazoak dituztenentzat; edota ohe bereziak, ohetik altxatzeko zailtasuna duenarentzat. Aztertutakoaren arabera, ordea, igogailurik gabeko eraikinetan bigarren zein seigarren pisuan bizi diren 80 urtetik gorako pertsonak daude, bizilagunek igogailua noiz jarri era-

baki bitartean kalera irteteko 85 eskaileratik gora jaitsi eta igo behar dituztenak. Edade-tuen etxebizitzak, orokorrean, ez dira haiek bizitzeko ondo egokituak egoten. Etxe askotan ez da inolako berrikuntzarik egin 40 urtean.

Adineko bikoteen arteko tratua

Adineko pertsonen arteko tratua ez da beti egokia izaten. Bikoteetan arazoak sortzen dira, adibidez, kideetako batek menpekotasun maila handia duenean eta besteak zaindu behar duenean. Zahar-tzaroaren buruhausteei gehitzen zaienean bikotekidea zaindu beharra, ondoan beti izan duten pertsona hori ez dute betiko moduan sentitzen, eta horrek haserrarazi egin ditzake. Gizarte laguntzaileek tratu txar kasuak ikusi izan dituzte bikoteetan, oihuak eta bultzadak. Hala baieztatu digu zaintzaile donostiarrak: “Bikotekidea hainbeste aldatu izana ez dute ulertzen, eta haien haserrea eta amorrua era agresiboan azaltzen dute. Bikotekidea bere kabuz komu-nera joateko gai ez denean, edo premia duela adierazten ez duenean, asko haserretzen dira,

“Gehienetan ez dituzte jotzen, baina jarrera ez da egokia izaten eta tratu txar horiek fisikoak baino okerragoak dira, inoiz sendatuko ez den zauria uzten dietelako”

GIZARTE LAGUNTZAILEA

esanez nahita egiten dutela pixa eta kaka praktetan”.

1.207 elkarrizketatu

EAEEn egin den lehen azterketa da erreportaje honetan azalduko eta Euskal Herriko gainerako lurraldeetan ez da antzerakorik egin. Gaia lantzeko, 1.207 pertsonarekin izan dira denera, beraien etxeetara joan eta elkarrizketak eginez.

Horretarako prestatutako galde-
tegia izan dute, eta batzuek tratu txarrak pairatzen dituztela onartu dute, baina beste kasu batzuetan elkarrizketatzaileak beraiek ohartu behar izan dira horretaz. Alfonso Gurpegi Gizarte eta Enplegu Saileko zuzendariak dio zaila dela gaia, sarri morbora jotzen dela, eta hori saihestu nahi izan dutenez, kontu handiz egin dutela ikerketa. Azterlanak azalduko ondorio nagusia da

adinekoen %0,9k tratu txarra jasaten dutela, gehienbat emakumeak direla biktimak eta adinean gora joan ahala kasu gehiago ikus daitezkeela. Etorkizunera begira, zahar etxeetan bizi direnak galdekatzea da asmoa, hirugarren adinekoen egoeraz ikuspegi ahalik eta zabalena izateko. ■

publizitatea

Euskara ikasteko Uda Barnetegietan izena emateko deia egin dute Eusko Jaurlaritzak, HABEk eta Euskaltegiek

Uda Barnetegiak oporretan zabalik lelopean Uda Barnetegietako matrikulazio kanpaina aurkeztu dute eta egitasmoaren inguruko datuak eman dituzte. Datorren udan barnetegietako ikasle kopurua handitzea da helburua.

Ez dago zalantzarik euskara ikasi nahi duenarentzat euskaraz egitea dela eraginkorrena, baina euskaraz egiteko aukerak izan behar ditu hiztun horrek. Eta zer hoberik aukera hori sortzeko Uda Barnetegiak baino?

Uda Barnetegiak euskara praktikatzeko sortu ziren, bereiziki ikasturtean zehar euskaltegietan ikasten ari zirenentzat. Eta horrexek jarraitzen du izaten helburu nagusia. Euskara ikasi nahi duten askok, ez daukate



euskara erabili eta praktikatzeko aukerarik euren ingurune hurbilean. Beraz, Uda Barnetegiek eguneko 24 orduetan euskaraz bizi-
tzeko aukera ematen diete ikasle horiei.

Euskaltegi ugari eskaintzen dute Uda Barnetegian parte hartzeko aukera: AEK-k, Aurten Baik, Bilbo Zaharrak, Gabriel Arestik, IKAk, Maizpidek eta Ulibarrik. Uda barnetegietan edonork har dezake parte. Baina, parte hartzaile gehienak 31-45 urte artekoak dira. Barnetegiak, berriz, euskara

ohikoa den ingurune linguistikoetan egoten dira eta aukerak ondokoak izan ohi dira: Aduna, Lazkao, Oñati, Arantza, Bakaiku, Lesaka, Zugarramurdi, Forua, Muxika eta Zornotza.



MUNDUORO
euskaraz

Agurtzane Beaskoetxea

«Erbestetik etorri ginenean, kendua ziguten Bilboko etxea!»

Argazki bat. Neskatila gaztea du ageri. Atzeko aldean, guraso batek entzun litzakeen berba ederrenak, alabak amari bidalitakoak. “Maitasunaren erakusgarri, zure alabak. Maite zaitut benetan. 1938-VI-6. Wight”. Rosario Beaskoetxeak Ingalaterrako kanpamenduan zegoela bidali zien gurasoei. Egun ez du beste oroigarrik, oroitzapena da osterantzean.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Lehengo batean irakurri nuen, eta hona aldatu dizut berriz, gerrako haurren berririk ez duenak jakin dezan, dakienak gogoan gorde dezan: “Britainia Handira etorri ziren haurren kopurua ez da zehatza. Baina iturri ofizialen arabera, 3.840 haur heldu ziren, 80 irakasle, 120 laguntzaile eta 15 apaiz katolikorekin batera. SS Habana itsasontzia Santurtziko portutik irten zen 1937ko maiatzaren 22ko gauean Southampton aldera”.

Bai, Habana itsasontzira sartu ninduten ni ere. Gure ama, nire neba Jon, ahizpa Julita... eta amama eta izekoak Santander aldera joan ziren, gerratik ihesi. Gure aita beste non edo nondik joan zen, Iparraldera. Bakarrik bidali ninduten. Ingalaterrara. Haiek berton geratu ziren. Ez dakit zergatik ipini ninduten ni barkuan. Bonbardaketek izututa nengoelako-edo. Ez dakit. Habanara sartu nintzen, anabasa handiaren erdian. Aita auzoko eskola bateko andereño batekin berba egin da zegoen, nire kargu egiteko, baina niri ez zitzaidan andre hura gustatu, eta hanka egin nion. Eta bakarrik geratu nintzen. Txartela nuen paparrean. 550. zenbakiduna nintzen. Kartoizko txartel bat zen. Barkuan, zeharo zorabiatu nintzen. Gogoratzen naiz bizkotxo handiak banatzen zituztela. Haiek ikusi eta goxoak iruditzen zitzaizkidan, baina orduan eta handiagoa zen nire zorabioa. Gogoratzen naiz egunak iraun zuela bidaia hark. Eta barku bat ere irten zitzaigula bidera. Erasoko zigula esan zuten, torpedoak jaurtiko zizkigula... baina ez zen horrelakorik izan.

Southamptonera heldu zineten...

Eta Georges VI.aren koroatzea zela-eta apaingarriak ikusi genituen zintzilik, portuan. Guri harrera egiteko zela pentsatu nuen nik! Apaingarriak kentzen ari ziren ordurako. Barkuan bakarrik ibili nintzen, osterata andre harengana itzuli nintzen arte. Hark jagoten ninduen, eta Ingalaterrako kanpaina-dendentan ere berak jagoten ninduen. Hiru kanpamendu egin zituzten. Abertzaleok lehenengoan, eta besteak beste bietan. Karpa handi bat zegoen, eliza, eta gu hara bidean baldekada ur jaurtitzen ziguten beste kanpamenduetakoek; komunista, sozialista edo ez dakit, bada, zer ziren haiek. Southamptonera iritsi eta horixe da nire gomuta: kanpamenduan ikusten dut nire burua. Zortzi-bederatzi haur ginen kanpaina-denda bakoitzean. Ondo organizatuta zegoen hori. Diziiplina gogorra zegoen. Ni jagoten ninduen andre hura-eta... Maria Legarreta, horixe zen haren izena. Zuzena zen, gero! Ez dut uste lagun handirik egin nuenik. Wight uhartera joan nintzela gero, hori badakit, eta Maria Legarreta hura ez zela etorri. Ez dakit zenbat denbora egin nuen lehenengo kanpamendu hartan. Uharrean urte bi egon nintzela badakit.

Wight uharteko egonaldia gainera oroitzapenik?

Bai, bai! Irtsi ginen eta *manor* eder bat zen han. Soro ikaragarriak, belardi ikusgarriak... Guk, umeok, olgetarako eta jolas egiteko leku handiak genituen. Mojak genituen gu jagoten, St. Joseph-ekoak, irlandarrak. Urrun ez



Nortasun agiria

Maria del Rosario Maria de Begoña Estanislada Beaskoetxea Gabiria (1924, Bilbo) ditu izen-deiturak, baina 'Agurtzane' izango zen Primo Riveraren diktadura garaian jaio izan ez balitz, senideen izenen legean. Begoña aldekoak zituen aita Arsenioren aldeko aitaita-amamak. Arabako Moretakoak, berriz, ama Amparoren partekoak. Ikastetxe batean baino gehiagotan izan zen txikitán, eta euskarazko eskolak jaso zituen. "Gure aitak guk euskaraz ikastea gura zuen. Beharbada, berak galdua zuelako". Gerrak eten zuen hura. Atzerrian egin zituen 12 urtetik 16ra bitartekoak. Itzuli zenean berrosatu zuen bere burua. Takigrafia eta Mekanografia ikasketak egin eta bateko kontsulatuan eta besteko banketxean egin zuen lan. Ezkondu zen arte. Gerrako haur, lekuko bizia.

joateko esaten ziguten, belarra ez zapaltzeko, nagusiak belar hura saldu egiten zuela, baina gu, ume, ez genien kasurik egiten. Zer ez egiteko agindu, huraxe egiten genuen guk. Bertan belarretan etzaten ginen eta itzulipurdika ibiltzen ginen. Egun batean, Ama Nagusia behin ere ez bezala haserretu zen, denok biltzeko agindu eta errieta eman zigun. "*I have no money!*", esan zigun. Alegia, belar hura saltzeko zutela eta kontu egin beharra geneukala. Ingeles apur bat ere ikasi nuen. Apaiz bi ere bagenituen gurekin: On Pedro Atutxa eta On Benito Larrakoetxea. Aita Atutxa Durangoko Santa Mariako parroko izana zela uste dut. On Benitok ingeles eskolak ematen zizkigun. Gerora jakin nuenez, Shakespeare ekarri zuen euskarara. Matematika eskolak ere bagenituen, katekesia... Hainbat gauza. Beste irakasle bat Lezamako medikuaren alaba zen, eta beraren logelara eramán ninduen, bi ohe zituen-eta. Han hobeto, betiere.



Ehunka ume izan ginen han, eta, laster lagunak egin nituen.

St. Josepheko mojen ardurapean zineten.

Haiek jagoten gintuzten. Estuak ziren moja haiek, gero! Katarroa zabaltzen zenean, Sister Fideliak ez zuen barkatzen. Moja ilegorria zen –ile apur bat uzten zuen agerian–, eta han gehien agintzen zuena. Katarroa harrapatzen genuenean, limoi-ura ematen zigun, azukreaz gozatua. Baina baten bat berbetan harrapatzen bazuen, ohearen kontra belauniko ipintzen zuen, eta ostean ematen zion pontxe hura. Gero, ohera sartzen uzten zion. Oso xeblebra zen moja hura. Neguan, bakailao gibealeko oliotik ematen ziguten. Hartu koilara eta ilaran ipintzen ginen. Baina, nonbait, batzuek jaurti egiten zuten olio hura, mojak jakin zuen batzuek ez zutela hartzen, eta, harrezkero, denok ilaran paratu eta eskura ematen genion

Aita

“Delineatzailea zen. Auzoko eskolak egin zituen, Zamudioko zoroetxea... Amaitu barik utzi zuten Zamudiokoa. Hura egiteko, Suitzara joan zen, hainbat medikurekin batera, instalazioak zelakoak egin aztertzeko. Denboralditxoak egin zuen kanpoan. Gerra hasi zenean, Jaurilaritzarentzat egin zuen behar, kartzelak sendotzen, haien kontra ez egiteko. Horiexek gure aita zenaren merituak. Eta hemen geratu izan balitz, harrapatu izan balute, seguru da hilko zutena”.

koilara. Berak betetzen zuen eta ahora sartzen zigun. Eta “*Thank you, Sister!*”, esan behar izaten genion. Garbitokia geneukan. Bertan garbitzen genituen hortzak eta osterantzekoak. Astean behin, bainua genuen. Arropa garbitzea ere, geure kontu zen. Gure arteko batzuk arduratzen ziren arropa lisatzen eta josten. Sukaldea oso handia zen. Ostirala beti zen barau, eta sardinar kezatuaren usaina zabaltzen zen goizean goizetik kanpamenduan. San Patrizio eguna berezia zen: hirugiharra, arrautzak eta bestelakoak ematen zizkiguten jaten egun hartan. Eta horrela... Gu Wight uhartean geunden, eta mutilak Southamptonen –batzuk, behintzat–, St. Josepheko mojekin haiek ere. Umezurtzak jasotzen zituzten mojek, eta mutiko euskaldunak ere jaso zituzten, Habanan joandakoak, esan gura dut. Abuztuak 2 zituen egun batean –Bank holiday zen–, festa handia egin genuen etxe handi hartan. Jolasak paratu zituzten, eta bozgorailuak esaten zuten: “*Come on, one penny!*”, penike bat, parte hartzekotan. Southamptonen zeuden mutikoak ere etorri ziren, eta ezpata dantza egin zuten bertako zabaldu batean. Gu, oster, irule jantzi ginen, sagar dantza egin genuen, kantatu... Festa ederra izan zen.

Gurasoen berririk bazenuten? Haiek bazuten zuen albisterik?

Bai, eskutitzak idazten genituen etxera, eta jasotzen ere egiten genituen etxekoak berriak.

Ama

“Gure amak ez zuen joera politikorik erakutsi bizian. Biak, hala aita nola ama, odol berokoak ziren, eztabaidak izaten zituzten noiznahi, baina gerra garaian banatu beharra izan ostean, Bilbora esku-hutsik itzuli, kendua zigutelako gure etxea, kendua ziotelako lana aitari diputazioan –hutsetik hasi behar izan zuen ostera–, bada, amak, behin ere, behin ere, behin ere ez zion errurik leporatu: ‘Hiregatik ari gaituk gorriak ikusten!’. Behin ere ez zion horrelakorik esan”.

On Benitok banatzen zizkigun eskutitz haiek. Ez dut batere gorde. Behin, argazki bat bidali nuen etxera. Berton azaltzen ginen Begoña Gerrikaetxebarria –gizen-gizena zegoen–, Teresa Beaskoetxea, besteren bat, eta laurok. Delako Teresak gure deitura bera zeukan, baina ez ginen senide. Teresa beti zebilen agintzen. Gurasoek bidaltzen zizkiguten eskutitzak goitik leitu behar zirela esaten zigun. Argazki hura etxera bidali eta bueltan jasotako eskutitzean, ahizpak esan zidan: “Ondo lagun potzoloak dauzkan!”. Eta ozen leitu behar izan nuen. Kar, kar, kar. Ume kontuok. Paseatzera ere irteten ginen, edo mendira, Needles aldera, Totland-era, Alum Bay-ra... Hondartza denak harrizkoak ziren. Ez ginen bainatzen, ibili baino ez genuen egiten. Bada, irtenaldi haietan beti egiten genuen topo Salvation Army-ko jendearekin. Leku guztietan zeuden. Ibili egiten ginen, hazi ere bai, eta etxetik eroandako oinetakoak gastatu genituen eta zapata gogorrakoak eman zizkiguten, azpian iltzeak zeuzkatenak. Behin, zapatak estreinatu eta auzo batetik igarotzen ari ginela, handik berriz ez pasatzeko esan ziguten, zapata hots ikaragarria egiten genuelako, nonbait.

Halako batean familiarekin bat egin zenuen berriz...

Gurasoek eskatu zuten gu etortzeko. Wight uhartetik Londresera joango ginen, Frantziara gero, eta trenez heldu ginen Akizera. Bila etorri zitzaizkidan etxeakoak geltokira, aita izan ezik, Baionan ari zen-eta beharrean. Akizera joan-etorrian ibili ohi zen. Roselle ospitalea konpontzen ibili zen, eta Capbretonen ere egon zen beharrean. Baina Akizen bildu ginen denok. Gurasoak errentan bizi ziren, bi gelatan, moja batzuen txaletean, Georges Clemenceau hiribidean. Akizen ez nuen ezer egin, ez eskolara joan, ez besterik. Babeslekura joan eta jatekoa hartu, amari laguntzen-edo. Etxean gelditzen nintzen eta Ingalaterrako kanpamendutik ekarritakoak aztertzen jarduten nuen. Ahizpak esaten dit franelazko azpiko gona gorri bat neukala, kanpamenduan eman zigutena ez hozteko,



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com





AZKEN HITZA

Gerrako haurra

“Gerrako haurra? Ez dakit zer esan gura duen ere. Orduan inork ez zuen horrelakorik esaten. Nik ez daukat nire burua gerrako umetzat, gurasoekin egon nintzen-eta denbora gehiena, Ingalaterran igaro nituen urte bi haiek izan ezik. Frantzian ere, gurasoak eduki nituen ondoan”.

eta jantzi egiten nuela Akizen ere, nahiz eta han tamainako hotzik ez egin. Bizarzuri itxurako xaboia ere banuela maletan, eta haiei begira ematen nuela denbora, dio ahizpak. Etxepeko Mademoiselle Levip-ek, osterara, zioen ea kirola egiten nuen, zarata egiten nuelako, nonbait. Nik kirola ez, maletatik gauzak atera eta sartu egiten nituen. Hiztegi bat nuela oroitzen naiz, ingeles hiztegia, On Benitok Ingalaterrako kanpamenduan eros- teko gomendioa egin ziguna. Behin, Akizera etorri zitzaigun Aita Benito. Herrian bazen euskaldunen lagun handi bat, taberna zuena. Hantxe egon zen Aita Benito, eta haraxe egon genion bisita aitzak eta biok. Orduantxe jakingo nuen Shakespeare euskaratzen ari

Argitasun beldurgarria

“Bilbon bizi ginen, aita diputazioarentzat zebilen beharrean, eta osabak, osterara, Sotaren eraikina jagoten egiten zuen behar. Hango sotora joan ginen bizitzen familia osoa, Bilbo bonbardatzen hasi zirenean. Ostean, Lezamara joan ginen, osaba hango alkatea zen-eta. Eta Gernikako bonbardaketa sasoian ere, Lezaman ginen gu. Izugarria izan zen hura. Etxetik irten, baserri osteko basoa igaro eta hegazkinak ikusi genituen, zelan pasatzen zuten mendia. Eta bonba hotsa gero. Iluntzean, argitasun beldurgarria”.

zela. Akizen urtebete egin genuen. Gero, Mundu Gerra hasi zenean Tarbesera joan ginen, han armategi bat zuten, eta denontzako beharra. Ahizpak ere han egin zuela beharra esan gura dut. Aitzak marrazkiak egiten zituen, eta bertako arkitekto batek han behar egiteko eskaintza egin zion. Baina etorri ziren alemanak eta kito, pikutara dena. Haiek etorri orduko alde egin genuen handik, beste errefuxiatu askorekin batera. Denera lau urte egin genuen Euskal Herri- tik kanpora.

Bigarren Mundu Gerrarekin Bilbora itzuli zineten.

Bai, etortzeko moduan izan ginen, beste errefuxiatu askorekin batera. Canfranc-etik igaro ginen. Gau bat Zaragozan egin eta Bilbora etorri ginen, izeko baten etxera, gurea kendua ziguten-eta. Ez genuen etxea atzera eskuratu, jakina. Izekoren etxetik Areilza Doktorea kaleko beste etxe batera joan ginen, eta hantxe geratu ginen. Aita jeltzale handia zen, eta, gogoratzen naiz itzuli ginenean ez zela zinemara joaten, irudietan Franco agertzen zenean zutundu beharrik ez izateko. Amak joan gura izaten zuen, aitzak ez. “Ni ez noa zutuntzen!”, esaten zuen... 16 urte nituen Bilbora itzuli nintzenean. ■



Dive Tarpoen urpekaritza




Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoen@euskalnet.net
www.divetarpoen.com

• Jose Manzaneda, Euskadi-Cubako kidea •

«Garapen jasangarria sozialismoaren bidetik bakarrik da posible»

Euskadi-Cuba elkarteko komunikabideen arduraduna da Jose Manzaneda. Joan den astean Kubako ekonomiaren zenbait alderdiz mintzatu zen, EHUren Udako Ikastaroen barruan, Bilbon antolatutako *Irudiak deshazkunderako/Telebista, internet, zinea mintegiaren* kariatara. Hitzaldia eman baino egun batzuk lehenago eskaini zigun elkarrizketa hau.

UNAI BREA

Argazkiak: Iñigo Azkona

La experiencia decrecentista cubana y el buen vivir (Kubako deshazkunde saioa eta bizimodu ona), horra emango duzun hitzaldiaren izenburua. Izenburu hori ez dugu guk erabaki, eta nire ustez ez da oso zuzena. Hemen darabilgun deshazkunde kontzeptua ez da batere erabiltzen Kuban. Han badira, gaur egun, bide hori urratzen duten zenbait saiakera, baina nik,

deshazkundeaz baino, garapen iraunkor kontzeptu klasikoaz hitz egingo nuke. Hau da, garapen ekonomikoa garapen sozialarekin lotua, eta ingurumenaren ikuspegitik orekatua. Izan ere, Kubak hazkunde behar du, nire ustez begien bistakoa da hori. Herrialdearen egitura ekonomikoa ahula da eta ez ditu nahi bezala asetzen herritarren helbu-





“Kaliforniako Global Footprint Network ikerketa-zentroak 2008an argitaratutako txosten baten arabera, Giza Garapenaren Indize ona daukaten munduko herrialdeen artean Kuba da ingurumenaren aldetik jasangarria den bakarra”.

ruak. Hortaz, hazkundera behar dute, hazkundera orekatua. Xede hori, une honetan, bete-betean dago txertatuta euren estrategian.

Hitz egin dezagun garapen jasangarriaz, orduan. Gai honi dagokionez, txosten bi aipatu behar dira. Horietako bat Kaliforniako Global Footprint Network ikerketa-zentroak egin zuen 2008an; konparatu egin zituzten ia 100 estaturen lorratz ekologikoa eta Giza Garapenaren Indizea (GGI). Herrialde guztien emaitzak aztertu eta hara, GGI ona daukaten artean Kuba da ingurumenaren aldetik jasangarria den bakarra. Giza garapen maila altua erdiesten du Nazio Batuen Erakundearen estandarren arabera; hezkuntza maila ona edo oso ona dauka Hirugarren Munduko lurraldeen testuinguruan; osasungintza, alfabetizazio... maila onak ditu. Eta aldi berean, energia gutxi xahutzen du. Beste adibidea nazioarteko WWF fundazioak emana da: 2009ko txostenean esan zuten Kuba dela munduko herrialde jasangarri bakarra.

Datu horiek berez pizten dute ondoko eztabaida: sozialismoa da denok jarraitu beharko genukeen eredua?

Baietz esango nuke, baina Kubak oso ezauzarri bereziak ditu eta ezin dugu esan hango

eredua beste edozein herrialdetan kopia behar denik, absurdua litzateke. Halere, kontuan hartzekoa da Kubak lortutako garapen soziala, hain energia gastu txikia eginda, planifikatutako ekonomia baten baitan baino ezin daitekeela lortu. Alde horretatik baietz esango nuke, garapen jasangarria iristea sozialismoaren bidetik bakarrik dela posible. Kapitalismoak ezinbestean garamatza ingurumenaren kolapsora. Sozialismoak ere eraman gaitzake kolapsora, sozialismoaren eredu batzuek ere baliabideak xahutu ditzakete, baina sozialismoa da aukera bakarra naturarekiko oreka lortzeko. Izan ere, ekonomiaren planifikazio arrazionaletik abiatuta bakarrik lor daiteke hori. Kapitalismoaren berezko joera guztiz bestelakoa da.

Alabaina, seguruenik Kubak ez du bere borondatez aukeratu energia gutxi gastatzea.

Herrialdeak 90eko hamarkada hasierako hondamendi ekonomikoa jasan zuenean, alegia, Sobietar Batasunarekin zeuzkan merkataritza hitzarmenak erori zirenean, kubatar jendarteak, kubatar iraultzak, dena planteatu behar izan zuen berriz. Premia larria zuten, eta horrek behartu zituen eredu jasangarrietara jotzera, aurretik, eta hainbat hamarkadaz,

Europa ekialdeko sozialismoak bezain energia xahutzailea izan baitziren, sobietar ereduak kopiatzearen ondorioz: nekazaritza industria, mekanizatua, ongarri kimiko askorekin... Egoera aldatzean hainbat irakaspen ateratu zuten. Ezin zituzten baliabideak alferrik erabili, ez beraiek hala aukeraturik, baliabiderik ez zeukatelako baidetik. Baina aldi berean, iraultzan, administrazioan, nekazari taldeetan... iritzi taldeak sortu ziren, prozesu hori ikuspuntu filosofikoagotik bultzatzen hasi zirenak: kubatar ekoizpen-eredua jasangarriago bihurtu behar zela pentsatzen hasi ziren.

Kubak hazkundea behar duela esan duzu. Zelan gauzatu hori?

Ekoizpena handitu behar dute bai industrian bai nekazaritzan. Garapen jasangarria bilatu nahi dute, eta horren barruan, gaur egun, funtsezko kontzeptua da elikadura-subirantasia. Kuba apenas den burujabea elikadurari dagokionez. Jaten dutenaren %70 inportatzen dute, baina landu gabeko milaka hektarea daukate. Une honetan, iraultza moduko bat gertatzen ari da nekazaritzan; herritarrei esan zaie hasi behar dutela elikagaiak ekoizten, edonon.

Baita hiri barruetan ere, ezta?

Bai, hiri barruetan jakia ekoizten ari dira [ikus ARGIAren 2.229. zenbakiko Net Hurbil atala], eta aldi berean saiateren ari dira jende asko landara itzuli dadin, oraingo egoera iraultzeko. Eta oraingo egoera da landatzeko moduko lurra eduki arren Kubak milaka eta milaka dolar gastatu behar dituela –turismoetik lortzen dituenak, edo zerbitzu medikuak esportatuz– janaria erosteko. Milaka lagun ari dira landara itzultzen zenbait pizgarriren truke, estatua lur sailak ematen ari zaio jende askori musu-truk landu ditzaten, eta abar.

Zer moduzkoa da herritarren erantzuna?

Hara, honek guztiak kontraesana sortzen du iraultzaren garaipen historikoetako batekin, alegia, lortutako kultur mailarekin. Landa-eremuk gazte askok ikasi dute unibertsitatean, eta haien asmoa ez zen landara bueltatzea. Orain hala egiteko eskatzen zaie, idiekien eta goldeekin lurra lantzeko, traktore nahikorik ere ez dago eta.

Oztopo bat izan daiteke Kubako sozialismoak duen gaitz historikoetako bat: langileen atxikimendu eskasa lanarekiko.

“Kuban, une honetan, iraultza moduko bat gertatzen ari da nekazaritzan; herritarrei esan zaie hasi behar dutela elikagaiak ekoizten, edonon”

Oro har, sozialismoak gaintzeke dituen erronketako bat da hori: nola uztartu estatuen enpresa batean lan egitea eta herrialdea, komunitatea, zerbitzatzearen kontzeptua. Sozialismoa eraikitzen saiatu den herrialde bakar batek ere ez du dilema hori konpondu. Ondorioz, kubatar langileen produktibitatea oso txikia da.

Funtzionario bihurtzen dira, nola-bait esatearren?

Bai. Momentu honetan, Alderdi Komunistaren Biltzarrean, horixe dute eztabaidagai nagusietakoa: nola lortu 50 urte eta gero herritarrek propietate kolektiboaren sentipena edukitzea, ez dezaten sentitu estatua ez dela beraia, beste batentzat lanean ari direla eta horregatik ahalik eta lan gutxien egingo dutela. Estrategiak garatzen ari dira horri aurre egiteko. Gutxika-gutxika, oraindik lehenbiziko urratsak besterik ez baitituzte egin, ohiko estatuen propietatetik kooperatiba eredu batera igarotzen ari dira sektore askotan. Sozialismoa birdefinitzen ari dira.

“Ekonomiaren planifikazio arrazionaletik abiatuta bakarrik lor daiteke naturarekiko oreka, eta kapitalismoaren joera guztiz bestelakoa da”

Zenbateraino balio diezagukete guri hango esperientziek?

Batez ere hausnartzeko balio digute, ez hainbeste zuzenean kopiatzeko. Zer ari da gertatzen munduan, eta zer egiten du Kubak nazioarteko korrante nagusien kontra? Horra hausnarrerako gaia. Badira, halaber, hemen aprobeitzatzeko moduko adibide zehatzak, hiri barruko nekazaritza esaterako. Han estrategia nazional bihurtu dute hori, eta dagoeneko milaka eta milaka lagun lanbidea da. Beste kasu batzuetan, autokontsumorako erabiltzen dira hiri barruko soroak, elikaduraren osagarri. Lehen Munduan asko ikas genezake eredu horretaz. ■



Alaitz eta Maiderren itzuleraren alde

E

gia da, azken boladan esnobismoz horditurik nebilen: Primavera Soundeko kronikak

MARC CAMPÀ

Boligrafo Gorrian, Iban Zalduaren *Biodiskografiak* liburua aurkezpenean, Family gora Family behera ttakunetan, ezker abertzaleko zenbait kritikan... Baiki, Jose Luis ongi gaztigatuta etxeko kontuetara itzultzeko garaia dela erabaki dut; euskal identitateari, Gu honen indartzeari, ekarpen txo zintzo eta leiala egiteko.

Kontu arina irudi lezake, bertso ttikikien gauza, baina halakoak izaten dira maiz goi arnaseko auzi ugari baino funtsezkoago finean. Izan ere, ohartu naiz uztaila dugula gainean, bertan ditugula udako herriz herriko jaiak, eta iazkoa ikusita (Shakiraren Waka-Wakaren hegemonia absolutua), bururatu zait urgen-tiazkoa dela alternatiba proposatzea. Alternatiba euskaldun eta abertzalea, esan gabe doa. Kanpoko musika arrotzari aurre egiteko kapaz dena. Izan ere, gaur egun ez dugu Shakirarekin lehiatzeko ganorazko euskal musika talderik. Gatibu rockeroegia da festa girorako eta gainera bizkaieraz egiten dute (eta ezagun da gipuzkoarrok ez garela batere toleranteak kontu horiekin). Kupela, oster, gipuzkoarregiak dira zazpiak baterako. Etxe, estankatuta geratu zen etorkizun handiko pare bat disko ondoren. Ez dira Betagarriren garai onenak. Ken Zazpi letra filosofikoegia egiten ditu. Zea Mays hor dago *Negua joan da ta* horrekin, baina apur bat maiztuta iritsiko da udako jaietara. Fito&Fitipaldis zale amorratuena ere nekarazteko kapaz da jadanik. Urte batean pailazoei esker irten ginen atakatik *Maite zaitut* gogoangarri harekin, baina ez gara ba urtero pailazoen esperoen egongo ezta?

Berandu baino lehen zer edo zer egin behar dela garbi



Beñat Sarasola

Apaolaza

Padrón

dago, txosnetan reggaeton erritmo gogaikarriko *Rabiosa* irentsiko ez bagaitu. Eta halako egoeretan, zuhurrena, zentzudunena, balio seguruetara jotzea izaten da. Ondo dago jende gazteari aukera berriak ematea, baina gisa honetako kinka larrietan, klasi-koengana joatea izaten da egokiena. Eta konbentzituta

nago Shakirari aurre egiteko balizko euskal alternatiben artean Alaitz eta Maider direla behinenak. Dudarik gabe, Alaitz eta Maiderrekin Shakiraz libratuko ginatke behingoagatik. Ez litzateke beharrezkoa izango abesti edo disko berririk grabatzea, ezagun baita talde klasi-ko baten itzulerak disko berri baten grabazioak baino arrakasta handiagoa izan dezakeela gaur egun. Pulpek Primavera Sounda leporaino bete badu, ez dakit zergatik ez luketen Alaitz eta Maiderrek gauza bera egingo euskal herrietako plaza eta enparantzekin. Segur naiz *Alaitz eta Maider performing first album* izeneko bira egingo balute, *Txanpon baten truke*, *Amets bat*, *Atxutxale*, *Háblame en cristiano*, *Miñi* eta gainontzeko klasiko hilezkoak izango lirakeela nagusi uda osoan. Shakira arrastoan sartuko genuke eta deskuidoan Euskal Herriaren independentzia ere gertuago egongo litzateke. Zaharruno bidean gauden gure belaunaldikook belaunaldi gazteenekin egingo genuke bat herriko plazetan, lehenengoak beren nerabe garaiaz mira egiten, bigarrenek gure historia musikaren zati loriatsuetan loriatsuena

—trikipoparen urrezko garaiak—ezagutzeko parada edukiz. Facebooken talde bat sortu berri dut Ttakunaren izenburu berarekin inork egitasmoarekin bat egin nahiko balu. Kamisetena, *Alaitz eta Maider, itzul zaitzte!* goiburarekin, bidean da. Esan gabe doa, beste ezin egitasmo izango da ongi etorria helburu goragarri hau bultzatzeko. ■



Alaitz eta Maider performing first album izeneko

bira egingo balute, Txanpon baten truke,

Amets bat, Atxutxale, Háblame en cristiano,

Miñi eta gainontzeko klasiko hilezkoak

izango lirakeela nagusi uda osoan.

Shakira arrastoan sartuko genuke eta

deskuidoan Euskal Herriaren

independentzia ere gertuago egongo litzateke



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

ZEIN DA BARRAZKI LANJEROSENA?

a) E.COLI



b) BRO.KOLI



d) BRUSELAKO AZA



soluzioa:

d) BRUSELATIK BETI BERRI PERILOSENAK

Xabier Etxaniz Erle

EHUKO IRAKASLEA

Kolegak

EHUKO *Campus*a aldizkarian irakurri berri dudan elkarrizketa batean behin eta berriro lotzen da irakasle lana (haurrekin, kasu horretan) sentimenduekin. Izugarritzko garrantzia ematen zaio harreman ona izateari gelan, giro egokia izateari, denok gustura egoteari... eta egia esan niri ere nahiko garrantzitsua iruditzen zait kontu hori.

Elkarrizketan, tamalez, ez zen beste hainbat konturi buruz hitz egiten. Esaterako, irakaslearen formazioaz, ikasleak hezi beharraz, gelakoen artean baten ardura besteak hezteak dela, irakasle lanak eskatzen dituen ikasketez, metodologiez, eduki zientifikoez eta abarrez oso gutxi aipatzen zen.

Antzeko zerbaite gertatu zen Gasteizko Irakasle Eskolako azken promozioaren ekitaldian. Diskurtso gehienak sentimenduei buruzkoak izan ziren, zer garrantzitsua zen enpatia, harreman ona izatea ikasleekin eta antzeko kontuak.

Nik klasean, ordea, urtero esan ohi diet nire ikasleei ni ez naizela haien “kolega”, ez naiz adiskide bat, irakaslea baizik. Eta irakaslearen ardura, betebeharra, askoz ere zabalagoa da; garrantzitsua da gelan giro ona izatea, garrantzitsua da komunikazioa egotea eta askatasuna



ALEX LARRETXI

«
Urtero esan ohi diet nire ikasleei ni
ez naizela haien ‘kolega’, ez naiz
adiskide bat, irakaslea baizik. Eta
irakaslearen ardura, betebeharra,
askoz ere zabalagoa da
»

norberak bere iritziak azaldu ahal izateko; baina inola ere ez da irakasle baten lana ikaslearen nahia egitea, ikasleei zailtasunak eragozteak, ikaslearen gustuetara mugatzea. Literatura irakasleak, esaterako, irakurzaletasuna bultzatzea baino askoz gehiago egin behar du; irakurketak eskaini, irakurtzeko moduak azaldu, ikaslea prestatu edozein testuren aurrean gaitasunak izateko... eta hori egitean, zenbaitetan, esfortzua, lana, eskatuko dio ikasleari. Baina ikasle horrek, pertsona horrek, etorkizunean hainbat tresna izango ditu testu ezberdinak irakurri ahal izateko, testuekin gozatzeko, Sarriornandiak zioen bezala idazle izateko irakurtzen duelako.

Gure gizarte honetan, baina, gero eta sarriago ikusi ahal dugu arduren utzikeria. Lasaitasunagatik, arazoei aurre ez egitearren, gero eta gehiagotan ikusten dugu “giro ona” bilatzen duten... gurasoak, esaterako. Etxean umeei nahi dutena egiten uzten dieten gurasoak, nahi dutena jaten ematen dietenak, “eskolan irakasten diote eta hemen, total, astean bi egunetan bakarrik egonda berdin da zer jaten duten”, “bi egunegatik ez dut eztabaidatuko”; izan ere irakasleak bezala, gurasoak ere ez dira seme-alaben adiskide hutsak, ez dira kolegak. ■

TXANDAN

Juanra Maku



Mutikotan, gogoratzen dut, jolas orduetan gure arteko liskarrak, askotan, bukatzen genituela bata besteari sinpleki, tonto! deituz. Erantzuna, berehalakoan, eta hi gehiago! izaten zen, pentsatuz norgehiagoka hor amaitzen zela, nolabaiteko erakustaldi inozo horrekin. Bazirudien horrelako ika-mikarekin arazoa konpondua zegoela. Baina egoera errepikatzen zen hurrengo batean.

Umetan, errealtate hurbila beti gailentzen da; arazoak ez dira aztertzen perspektibarekin, ez eta

Eta hi gehiago!

arazoa errepikatzen baldin bada, zergatik den. Eta badirudi, arazoa, iraganekoa izanda, ez dela existitu. Baina arazoak arazoa jarraitzen du izaten, denon artean arazoari aurre ez diogulako begiratzen.

Egoera hau, nabarmenagoa geratzen da, liskarra, konfliktua, helduen artean ematen denean. Iraganekoa, okerrean gauzatu baldin bada, ez dugu lotsarik izan behar arbuigarria izan dela aitortzeko. Hanka sartu dugula. Etikoki gizakiaren garaipena litzatekeelako. Baina berrogei eta hamar urte beteko ditudan urtean, ez eskatu, tonto!, eta hi gehiago! eszena errepikatzea. ■

Baldid Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

Adi



Charles F. Hockettek hizkuntzalariak, animalien eta gizakion lengoaiaren arteko erlazioak aztertzen ari zela, hizkuntza naturalen ezaugarriak zerrendatu zituen. Soziolinguistika Klusterrak euskaratutako bertsoan, hamabost ezaugarri horietako bat honaxekoa zen: “Hiztunak bere burua entzuteko gaitasuna du”. Joder, horixe egia! pentsatu nuen, nire artean, hura irakurritakoan.

Izan ere, garbi dago, garbi dagoenez, geure burua entzuteko gaitasuna dugula. Askotan falta zaiguna, ordea, bestek, gainerakoek esandakoa entzuteko edo aditzeko gaitasuna da. Zenbat aldiz ez ote den gertatzen hiztuna bere burua entzunez gozatzen aritzea, pozik eta harro bere erretorikaz eta etorriaz; eta, aitzitik, entzuteko txanda iristen denean, aditzen baino gehiago, ondoren esan behar duena pentsatzen, mamitzen eta fintzen aritzea.

Entzutea, izan ere, esatea baino ariketa zailagoa dela iruditzen zait. Askotan behintzat. Jendaurrean hitz egiteko eta egoki komunikatzeko ikastaroak eta tailerrak nonahi ikusten ditugu, eta, zinez, beharrezkoak eta lagungarriak izan litezkeela uste dut. Berezkotik izan du akaso hiztun eta hizlari onak, baina teknika eta



Garbi dago, garbi dagoenez, geure burua entzuteko gaitasuna dugula.

Askotan falta zaiguna, ordea, bestek, gainerakoek esandakoa entzuteko edo aditzeko gaitasuna da



baliabide onak eta eraginkorrak ere egon badaude, eta ikasi eta landu daitezke.

Baina horiek bezain beharrezkoak eta lagungarriak izan litezke entzuten edo aditzen ikasteko ikastaroak eta tailerrak. Isilik egotea eta belarriak zabaltzea baino gehiago baita entzuten jakitea. Ziur nago erakusteko eta lantzeko moduko teknikak ere badirela

egiteko horretarako, eta niri behintzat eskaintza zehatzik iritsi ez zaidan arren, izanen da gisakorik hor barna. Gehientsuenok, iruditzen zait, esker-tuko genuke arlo horretan hobetzeko aukera izatea. Norberarentzat mesede izanen litzateke entzuten dizutela sumatzea, eta zure hurkoak ere esker-tuko lizuke benetan adi zaudela eta hizketan inorentzat ari dela jakitea. Entzun dezagun geure burua, horrenbestez, baina arreta bera —edo handiagoa— jar dezagun ondokoak esaten digun horretan.

Hasieran aipatutako Hocketten zerrendan badago beste ezaugarri aipagarri bat. Bistakoa da, baina hala ere zerrendan sartzeko modukoa iruditu zitzaion hizkuntzalari estatubatuarrari. Hauxe da: “Hiztunak gezurra esateko gaitasuna du”. Horrek ere emanen luke ikastaroren bat antolatzeko adina, baita gisa honetako kolaboraziotxo bat idazteko ere, baina beste baterako utziko dugu. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



ari dira udalak. Galtzaileen lehen purrustaldiak igarota, erridikuluaren erresuma itxura gabean aberastu ondoren, urak bere bidera doaz ur-aldietan lehertu gabe. Eta hala ere, beren buruei sozialista deitzen dietenek ez dute ikasten, orain Bildu omen da oposizioarekin Udaletxeetan lanean hartzeko gai ez dena. Hau esaten ari dira besterik espero balute bezala, beraiek Bildurekin kolaboratzeko ahaleginak egin izan balituzte bezala. Ulertzen diet, egoera berezian bapo, hau betirako zela ustean egin zituzten kalkuluak, zirrikitu txikie-

Normaltzen

nak sekulako pitzadura eragingo zuela kalkulatu gabe. Esaten zitzairen hedabideetatik, Espainiako Erreinuaren iritzia ordezka nahi luketenek, garbi zeukaten orain arteko pagotxarenak egina zuela egoera berriaz. Eta zuzen zeuden, Bildu haize kolpeak aurretik eraman du beraien estrategiaren eraikin ziztrina, lurrari lotu gabeko gaztelu itxuratua, Bordeleko Garona ibaian TKEk jarritako balizak legez. Irabazi diegu eredugarriak izan gaitzkeela frogatzeko aukera. Fundamentuz ekin, eta esanak gauzatuz ongi eginaren uholdeak sortu guztiak harrapa gaitzan. ■

BERTSO BERRIAK

Joanes Etxebarria

Aurore Martini jarriak



XDZ

I

Euroaginduz zigor liteke
Berlusconi Rumanian,
euroaginduz zigor liteke
eta eskala haundian,
euroaginduz zigor liteke
oinarriturik egian,
baina zentzua galdurik dabil
Europa azken aldian,
gaztea botaz eta tortura
utbiz komisaldegian.

II

Ostikada bat eman daiteke
etsaiaren gorrotoaz,
ostikada bat eman daiteke
lagun arteko jokoaz,
ostikada bat eman daiteke
min egiteko gogoaz,
izan daiteke intentzionala
edo nahigabe joaz,
eman daiteke estatu bati
aberri amodioaz.

III

Klandestinoan izan daiteke
borrokarako beharrez,
klandestinoan izan daiteke
ere intentzio txarrez,
klandestinoan izan daiteke
ez erretzeko su garrez,
izan daiteke kementsu edo
dudakor eta negarrez,
bete dezake herri oso bat
borrokarako indarrez.

IV

Txakurrak jin ta izan daitezke
beltzak, gorriak, urdinak,
txakurrak jin ta izan daitezke
fedexarreen eginak,
txakurrak jin ta izan daitezke
tratu txarrerako finak,
baina hauekin oraindik ere
ez ziren denak jakinak,
pareko jende elkartasunak
ager litzake ezinak.

V

Elkartasuna izan daiteke
munduaren bestaldeko,
elkartasuna izan daiteke
AHT saihesteko,
elkartasuna izan daiteke
auzolan bat egiteko,
edo Baionan erakutsia
dutenez baieztatzeko:
sei txakur ez da aski izanen
laguna eramaiteko.

VI

Aurore goraintzi eta biba zü!
jarraik ezazü borrokan,
ilüsioa piztü beitzü
askatarzünaren bortan,
zure üngü(rü)ko alkartarzüna
ez da errügabe hortan,
orai sinesten hasirik gira
bi estatüen porrotan,
nahiz aitzina joan behar giren
irabazteko asmotan.

DOINUA: Gure aurreko guraso zarrak.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

Iban Zaldua

«Liburu hau nire bizitzako soinu-banda da hein batean»

Ipuinetan zaildutako idazleak musikara jo du beste behin. Oraingo *Biodiskografiak* (Erein, 2011) liburuan, aitzitik, mozorroa erantzi du, eta gaztetan barrura sartu zitzaizkion pop-rock diskoak besapean harturik datorrigu. Disko azalez horniturik datorren lanak, dena den, Iban Zalduaren beti-betiko egitekoa dakarkio irakurleari: ipuina. Musikaz blai izanagatik ere.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Eite bereziko liburua, bilduma estandarrean ageriagatik ere.

Horixe nahi nuen, diskoaren itxura gogoratziko zuen liburua, irudiak ere izango zituen, diskoen azalak bilduz, alegia. Erein argitaletxera ideia eraman nuen, onartu zidaten, eta horrela argitaratu dute liburua. Gisa honetako lana ohiko bildumatik kanpo ateratzea ere bazegoen, uste nuen sail bereziren batean argitaratuko zutela, eta on eta txarrak ditu horrek, baina ohiko literatura sailean ikusi du argia azkenean, eta ez zait gaizki iruditzen, liburu hau, azken finean, ipuin bilduma da-eta, askoren artean bat.

Ipuin liburua da, beraz, *Biodiskografiak*?

Bai, ipuinak, ez musikari buruzko lan bat. Hori egin nahi izan banu, beste disko batzuk aukeratuko nituen, lan osoagoa izango zen, pop anglosaxoiaren inguruko aukera zabal eta osoagoa, dudarik gabe. Esaterako, horretan ari naiz oraintxe *Nabarra* aldizkarian. Han, hilero hiru disko aukeratzeko ditut, bata-sun tematiko baten arabera (dela dibortzioa, dela postpunka, dela...), eta testuok bai, musikari buruzkoak dira. Horiek bilduko banitu, musikaren inguruko entziklopedia nola-halako bat izango nuke, baina *Biodiskografiak* ez da horrelakoa. Bai, badu horren kutsua, musika eta pop taldeen inguruko liburuen zalea naizelako, era horretako liburuak erosi ere egiten ditudalako, bilduma egiten, eta baliteke nire lan honek horien antza izatea, baina horixe, antza, nik ipuinak idatzi nahi nituen-eta, horixe zen nire helburua, dis-



koetatik abiatu, eta ipuinak sortu. Ipuinak, bestalde, aukera ematen du generoen arteko hibridazioan jarduteko, saiakera ere egiteko tartean-tartean. Horra The Sound-i buruzko testua, adibidez, non memoria pertsonala, taldearen bukaeraren historia-rekin nahasten den. Asmo nagusia, dena den, fikzioa zen, ipuina.

“Diskoak, kaseteak, eta beste zenbait oroitza pen falsu”. Beneran falsu? Autobiografiatik ere badu lan honek...

Bai, nire ipuingintzaren parte handi batek bezala. Horretan ez da nire aurreko lanetatik askorik urruntzen. Autobiografikoago idazteko asmoa izaten dut askotan, baina gero, fikzioa jotzen dut beti, ez naizelako nire memoriak fidatzen. Izan ere, memoriak, berez, horixe egiten du, iragana aldatu. Eta horregatik da autobiografia, izan, fikzioaren adarra, neurri batean. Ipuinak, berriz, memoriak autobiografiari eragiten dizkion aldaketak lasai erabiltzeko modua eskaintzen dit. Autobiografia zehatz bat egiten ez naiz ausartzen. Lan horrek, kontraste eta dokumentazio lan handia egitera behartuko ninduke, lagun eta ezagunei galdetzeraz eta beste. Badut horren inguruko kezka, eta horretaz ari naiz The Sounden ipuinean, ez alferrik du izena *Memoriaren butsak*... Horretan ari naiz nire fikzio lan guztietan. Bestalde, nire bizitza ere ez zait, bere horretan, biziki interesgarria iruditzen. Interesgarriagoa zait hura aldatzea. Eta pistak borratu, bide batez esanda...

“Pop kanta askoren letrak nahiko ergelak dira, berez. Poema bezala ezin saldu, gehienetan. Musikak salbatzen ditu”

Musikariari galdetu eta batak esango du: “Musika da lehenengo”. Besteak: “Hitza da lehen”. Zure liburuan zeinek agintzen du?

Diskoak. Kasu gehiago egiten diot musikari, delako musikak nire barruan eragiten duen sentimenduari. Egia da, batzuetan, letrak ere agintzen duela bidea, zer idatzi erakutsi didala. Nola den kanta. Askotan, biak batera datoz. Seguru nago, zenbait kantaren hitzak, hitzak soilik, ez lirakekeela gauza handia izango musikariek ez balute. Pop kanta askoren

letrak nahiko ergelak dira, berez. Poema bezala ezin saldu, gehienetan. Musikak salbatzen ditu. Bada hor misterio franko, ezin jakin zergatik hunkitzen gaituen kanta jakin batek. Musika eta hitzak batera datozela esan beharko nuke.

Uste nuena baino gizarte kritika handiagoa dago zuk aukeratu dituzun diskoetako hitzetan, bai eta ipuinetan bertan ere.

Baliteke. Ez da debaldekoa Beatlesen *Revolver* albumarekin hastea liburua. Pop musikan arinkeriak agintzen zuen garaian sortutako diskoa da, baina Beatlesek, ordu arteko arrakasta baliatuz, pop-aren eta rock and rollaren barruan maila bat gora egitea pentsatu zuten, eta *Revolver* eman zuten, *Rubber Soul* eta *Sgt. Pepper's*-ekin batera. Horregatik jarri dut liburu sarrerako aipua ere, Radioheadeko kantari Thom Yorkerena: “Ez dut sekula sinetsi izan pop musika zabor eskapista denik. Beti dago iluntasun moduko bat bertan, are pop musika distantsuenaren baitan”. Ez da beti gertatzen, baina Beatlesen ondotik, gero eta maizago gertatu da. Denetarik dago. Radioheadek berak oso musika intelektuala egiten duela esango nuke, haien hitzak irakurri besterik ez dago.

Pop musika ihesbide ez, diozu, eta zure ipuinak ere ez. Bada hor botere kritika, maitasun hautsia, heriotza eta suizidioa, lagunengalera...

Bai, bai... Azken finean, nire bizitzako soinu-banda da liburu hau. Hein batean! Nire bizitzan disko gehiago daude, jakina, hogeita hemezortzi hauek ez ezik, eta bizitzan zer horiek guztiak daude. Baina gainerako liburuetan ere ageri dira gai horiek, obsesio batzuk etengabe errepikatzen dira. Liburu honetan abiapuntua da ezberdina, ez emaitza... Nire esperantza da, hala ere, beti aurrekoan baino hobeto idaztea. Hori izaten da nire asmoa. Irakurleak esan beharko du lorzen dudan...



Hasteko, zurekin dituzu bi irakurle, liburuaren hitzaurrea egin duen Fermin Etxegoien, hitzaztea egin dizun Mikel Hernandez Abaitua.

Bai, suertea izan dut alde horretatik; aurkezpenean, gainera, Beñat Sarasola izan nuen ondoan. Inguruan harrera ona izan du libururak, baina, badakizu, batzuk adiskideak dira, eta zure obrari dagokionean, adiskideez ezin guztiz fidatu, amaz edo amonaz bezala.

Anjel Lertxundiri berrikitan irakurri diot itun bat sortu behar dela idazlearen eta irakurlearen artean. Lurralde komun bat, diot nik, non bien gogoek bat egingo duten. *Biodiskografiak* honen kasuan, nola josi idazle-irakurleen nahiak, pop anglosaxoia arrotz zaion irakurleari? Zailtasun gehigarria da hori, kontziente naiz. Baina ipuin konbentzionaletan ere gertatzen da irakurle jakin bati idazlearen obsesiorik ez interesatzea. Nire irakurle multzoa mugatua da, berez. Guztientzat idazten saiatzen naiz, baina badakit ez naizela zenbait jenderengana helduko. Gustu eta interes ezberdinak, besterik ez. Liburu honi dagokionez, errazago helduko naiz bertan ageri den pop musika ezagutzen duenarengana, ezagutzen ez duenarengana baino. Ezagutzen dutenak plazer gehigarria izango dute, akaso. Berdin gertatzen zait hemengo kontuez gaztelaniaz idazten dudanean: interesatuko al zaio Almeriako irakurle bati? Baina arriskatu beharra dago, eta idatzi, handicap eta muga guztiak gorabehera. Ipuinok nahikoa indar dutela uste dut, dena delako irakurleak irakurtzeko modukoak dira. Esperantza dut, hala ere, ohiko ipuin liburua irakurriko ez lukeen irakurleak ere irakurtzea lan hau, musikaren amua irentsita: hor agian badago publiko bat nire “ohiko” literatur lanetara iristen ez dena, erakarrita senti daitekeena... Baina auskalo.

Eta berrogeitaka diskotan, bat, bakarra, euskarazkoa: Itoizen *Alkolea*.

Nire hezkuntza sentimentalari lotuta dator hori, musika anglosaxoiari, alegia. Eta, zehatzago, “uharteetakoa”, britainiarra. AEBetako oso musika gutxi da liburuan. Entzuten nuen euskal musika, eta entzuten dut, baina lan honetarako, Itoiz ageri da, ez besterik. Momentuan entzuten ari nintzen musikatik edan dut ipuinok idazteko, eta anglosaxoia gehiago entzuten dudanez, hortik jo dut. Itoiz? Ezinbestekoa nuen. Pop-aren inguruan eratua dudana unibertsoan leku inportantea du Itoizek. Eta urtea joan eta urtea etorri musika entzunez, Itoiz disko-jogailuan jartzea ere tokatzen da. Bestalde, 80ko hamarkadako euskal musikan, “Rock Radikal Vasco” delakoaren ez tandarekin-eta, gehiago ziren rock taldeak, pop-ekoak baino... ■

Estilo ariketa, diskoa abiapuntu

“Esperimentalagoa da abiapuntua, emaitza bera baino. Estu jarraitu nuen ideia izan zen diskoak eman behar zidala ipuina, eta ez alderantziz. Esperimentala, OuLiPokoek, Perecek eta gainerakoek egiten zituzten ariketen gisan. ‘E-rik gabe idatziko dugu’, hots, erregela bat eman eta hari jarraika idatzi. Nire kasuan, erregela sinplea da: ‘Diskoa da abiapuntu. Hari tiraka idatziko dut ipuina’. Estu bete dut arau hori, baina, finean, testu aski konbentzionalak iruditzen zaizkit: ipuinak, orain artean idatzi ditudanak, eta gerora ere idatziko ditudanak bezalakoak. Gutxi gorabehera”.



Gasteizen euskarazko hauek ez galdu:

DIBERTIKALE

Uztailak 4, astelehena

• **MENDIKO ALTJORRA**

19:30, Zuberoa plaza (Iparralde GE)

Uztailak 6, asteazkena

• **STOP! GORRIA**

19:30, Zaitzegiko gazteluaren plaza

Uztailak 12, asteartea

• **OILASKOETXEA**

19:30, Abetxukuko kiroldegiko plazan

Uztailak 13, asteazkena

• **DJ THOBEN ETA LORE POWER**

19:30, Ibaiondoko GEko plazan

UDAKO TXOTXONGILOAK ERAKUSTALDIA

Uztailak 16, larunbata

• **MONSTER SHOW**

19:00, Arriagako parkea

Uztailak 17, igandea

• **MONSTER SHOW**

19:00, Aihotz plaza

Uztailak 30, larunbata

• **Barreras**

19:00, kalez kale: Probintzia plazaatik Foru plazara

Uztailak 30, larunbata

• **Tanxarina**

18:00, 19:15 eta 20:30, Aihotz plaza

SANTIAGO EGUNA

Uztailak 25, astelehena

• **Nekazaritza eta abeltzaintza azoka, herri kirolak, pilota partidak eta musika.**

ANDRE MARIA ZURIAREN JAIK

Abuztuak 2, asteartea

• **PREGOIA**

22:00, Espainia plaza

Abuztuak 4, osteguna

• **ZELEDONEN JAITSIERA**

18:00, Andre Maria Zuriaren plaza

Eta abuztuaren 4tik 9ra bitartean

300 ekitalditik gora. Nabarmentzekoak:

Joseba Tapia, Pantxoa eta Peio, Zea Mays, Bronze+Trumbo, Zarama...

Etorri eta gozatu gurekin!



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Liburuak

KRITIKA

Letrak elurretan.

Antton Kazabon. Irudiak: Jokin Larrea.
Elkar. 72 orrialde. 9,80 euro.

Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle



Hosto eta orri artean

Denis mendian bizi da aitonarekin, herritik eta eskolatik oso urruti eta horregatik ez du irakurtzen ez idazten ikasi. Arazo horri irtenbide bila Denisen lehengusina gonbidatzen dute Gabonetako oporrak pasatzera beraiekin mendiko bordan, eta horrela mutilari irakatsi ahalko dio irakurtzen eta idazten.

Kazabonen liburu hau opor horien kontaketa dugu, nola iritsi zen Eburne; nola hasi zen inguruak ezagutzen Denisen laguntzarekin; nola ikasi zuen neskak zerua irakurtzen: “goiz gorri, arratseko euri” (45. orrialdea); lurreko markak irakurtzen: “ikusten al dituzu lurreko marka hauek? Lur gorri hauek guztiak, gauzez basurdeek janari bila, muturrarekin harrotutakoak dira” (30. orrialdea); antzaren jokabidea irakurtzen: “hotza datorrela. Eta bihar bertan, beharbada, elurra mara-mara egingo duela. Antzarak oso azkarrak dira, eta neguko hotzaren kilimak atzetik sentitzen dituztenean, ihes egiten dute, eguraldi hobearen bila” (23. orrialdea).

Egunak joan ahala irakurlea mendiko bizimodua ezagutzen joango da, Eburneren eta Denisen arteko harremanaren ondorioz natura ere hobeto ezagutuko du; baina baita bi neska-mutikoen artean sortzen ari den sentimendua ere, adiskidetasuna baino sendoagoa dena.

Antton Kazabonek gertakariz, abenturatzoz osaturiko idazlana eskaintzen digu, oso erraza egiturari (egunero gertatzen diren kontuak azaltzen baititu, orden kronologiko batean) eta sinplea idazkeran, elkarriketen bidez informazio asko helaraziz (eta horrek, besteak beste, testuari arintasuna ematen dio, erraztu egiten du irakurketa biziagoa bilakatzu). Baina sinpletasun horretan bada mezu bat baino gehiago; adiskidetasunaz, ekologiak, naturaren ezagutzaz... Baita kulturari buruzko gogoeta ere. Eburnek Denisi irakatsi behar dio letrak irakurtzen, letrak idazten; baina Eburnek berak askoz gauza gehiago irakurtzen ikasten du Denisek irakatsita. Eta kulturaz, jakitun izateaz, bada gogoeta nahiko polita Eburne eta Denisen arteko elkarriketa batean:

“—Bihar hasi beharko dugu, Eburne. Ez badut irakurtzen ikasten, bizitza osoan ezjakin hutsa izango naizela esango dit aitonak. Nik ez dut horretarako batere gogorik, baina... Badakizu, ni hosto eta orbel artean gustura ibiltzen naiz, baina liburuetakori orri artean... Ez dakit nola moldatuko naizen.


—Zu ezjakina? Nahi nuke nik zuk adina jakingo banu” (41-42. orrialdeak).

Irakurketa goxo eta arin horretan oso lagungarriak dira, bestalde, Jokin Larrearen irudiak, egoera ederki islatzen duten zuri-beltzeko irudi lortuak eta liburuaren tonuarekin bat egiten duten ilustrazio ederrak. ■

Xabier Lete gogoan ‘Hegats’ aldizkarian

Euskal Idazleen Elkarteak argitaratzen duen *Hegats* aldizkariak Xabier Lete omen du du azken zenbakian. Horretarako poeta eta kantaria ondo ezagutzen zuten hainbat lagunengana jo dute: Jose Angel Irigarayk zabaldu du aldizkaria *Xabier Lete, lore gorrien arteko poetika* testuarekin; Lourdes Otaegi Imazek oiartzuarraren esanezinen

poesiaz eskribitu du; Joxerra Garziak, Antton Valverde eta Xabier Mendiguren Elizegik osatu dute iazko abenduan zendu zen artista-ren potreta. Baina horrez gain, Hegatsek Leteren poema antologia laburra ere eskaini digu, 1968tik 2008ra inoko ibilbide poetikoa osatzen laguntzen duena. ■



Hegats 47.
Batzuen artean.
EIE.
76 orrialde.
7 euro.

Barazki mokaduak prestatzeko errezetak

Donostiako Kaskazuri jatetxeko sukaldean sortua duzu *Barazki mokadu goxoak* liburu idazteko ideia. Sasoi bakoitzari dagokion janaria prestatzea dute gogoko han eta horregatik, garrantzia ematen diote produktu bakoitza dagokion unean erabiltzeari. Eta gaur egun geroz eta ohikoagoa bihurtu denez plateren aurkezpena ere zaintzea, bada, dena batera nola egin azaldu dute Tarttalok eta *Berriak* publikatu duten liburu honetan. Argazki koloretsuz hornituta agertzen dira errezetak eta erakusten dute, funtsean, barazkiak jateak ez duela zertan dastamen festarekin lehian egon. Orain irakurleari dagokio etxean liburuak egiten saiatzea. ■



Barazki mokadu goxoak.
Batzuen artean.
Tarttalo/Berria.
173 orrialde.
22,50 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Tiempo del tiempo.
Red Veil.
Autoekoizpena.
Iraupena: 52'28".
5 euro.

Tentaziopean bizi den pop-rocka

DONOSTIAKO ETA TOLOSALDEKO kideak dituen Red Veil taldeak baditu nahikoa ezaugarri bere kantak irrati askotan entzuteko modukoak izateko —hala ere, irratiarena aspaldian negar egitekoa da eta horrek beste kontakizun baterako emango luke—. Etxean grabatu badute ere, diskoak oso soinu ona du, Daniren ahotsak izaera berezia dauka eta gainera etekina ateratzen badaki. Kantetan, gitarrez ondo hornitutako pop-rocka eta 70eko hamar-

kadako hard-rock distiratsua edo AEBetako hegoaldeko rocka modu dotorean ezkontzen dituzte. Bestalde, badira riff ia metaleroak dituzten piezak eta punteo heavy ase-ezinak, besteak beste. Piztia eta Ederra, biak elkartuta. Eta hitzetan —gaztelaniaz— gai sozialak eta jarrera *canalla* uztartzen dituzten metafora eta poesia dezente batu dituzte.

www.myspace.com/redveil

Dani - Red Veil

«Gaur egun diskoetxe batekin lan egiteak desabantailak gehiago ditu abantailak baino»

Melodiaren aldeko indar neurtu asko dago disko honetan. Erraza al da oreka hori lortzea, batzuetan gelditzen jakitea?

Abestiei buelta asko ematen dizkiegu, taldekide bakoitzak musikaren pertzepzio propioa duelako. Baina, azkenean, badakigu guztiok adostasunera heldu behar dugula. Eztabaida horretan sortzen da oreka. Guztiok amore ematen dugu zerbaitetan eta gustuko ditugu bai emaitza, bai musika eta erritmoaren arteko batasuna. Hori da Red Veilen errezeta.

Harritu nau zuen musika proposamenak komertziala izateko aukerak edukita, Creative Commons erako lizentziaren alde egin izanak.

Gure ustetan gaur egungo musikaren banaketa sistema zaharkituta dago. Gaur egun diskoetxe batekin lan egiteak desabantailak gehiago ditu abantailak baino: zure musika-



rekiko eskubideak galdu eta banaketaz norbera arduratu beharra. Arrazoi beragatik SGAEtik aldendu eta Creative Commonsen alde egitea erabaki genuen. Gaur egun gure arazo nagusia kontzertuak lortzea da.

No te puedo ver (Ezin zaitut ikusi) abesti berezizat dut, musikan eta hitzetan.

Red Veilen eta rock-and-rollaren esentzia bateratzen ditu: drogen

kontsumoari buruzko hitzak, melodia rockeroa eta gitarren arteko duelua. Jotzen dugun bakoitzean, asko izerditzten dugu, zerbaitengatik izango da.

Iraganera asko begiratzen al duzue? Erreferentzia asko aurkitu ditut diskoan...

Bai, gure hitz askok iraganarekiko nostalgia dute, horregatik jarri genion diskoari izenburu hori. Baina hasiak gara jarreraz aldatzen eta etorkizunari ilusioz begiratzen.

Etxean grabatu duzue? Zorionak! Emaitza oso dotorea da.

Ia guztia nire etxean grabatu dugu, baliabide oso apalekin. Teknologia gabezia lan ordukin estali dugu. Bost hilabete pasa genituen grabatzen eta urtebete pasa dugu nahasketak bukatzeko. Azkenean nahi genuen diskoa egin dugu eta emaitzarekin oso pozik gaude. ■

Ezpalak

JON TORNER

Ipar Euskal Herriko ihauteriak materiagabeko ondare izatea xede

HERRI SOINU elkarteak, Iparraldeko Euskal Dantzarien Biltzarrak, Euskal Kultur Erakundeak, Lapurtarrak taldeak eta Akitaniako musika eta dantza tradizionalen CMDTA federazioak Ipar Euskal Herriko ihauteriak materiagabeko ondare izendatzeko eskatuko diote UNESCOri. Kaskarot dantzak ditu oinarri eskaerak. "Ihauterien ohiturak ongi ezagutuak dira dokumentu ezberdin ainitzi esker", diote aipatu elkarteek. "Dokumentu horiek frogatzen dute XVII. mendetik goiti aipatzen zirela Kaskaroten agerraldiak. Ezagutzen dugun lehen agerpena da Baionan Angulemeko Dukesari egin zitzaion ongi etorria 1823. urtean. Egun hortako tokiko angintariak lapurdiko Arangoitze, Kanbo, Hazparne, Itsasu eta Uztaritzeko herriei eskatu zien beraien dantzari onenekin etortzea, Kaskaroten dantzak emateko gisan".

2012ko urtarrilean egingo dute '.eus' domeinuaren eskaera

INTERNETeko domeinuak esleitzen dituen ICANN erakundeak lehen mailako domeinu orokor berriak eskatzeko aukera 2012an zabalduko du. Bertan egingo dute .eus domeinuaren eskaera. Domeinuaren aukera aurkezteak ezer ziurtatzen ez duen arren, PuntuEus elkarteak kideek 2013a domeinu berria lortuta hasi nahi lukete. Orain hiru urte sortu zen taldea; izaera ezberdineko 60 erakundek bat egin dute proiektuarekin eta 26.500 herritar baino gehiagoren atxikimenduak jaso dituzte. "elkartea albiste honen zain egon da jaio zen egunetik", diote ekimanaren sustatzaileek.

Gordailua zentroak (Irun) Gipuzkoako ondare higarria bildu, zaharberritu eta ezagutaraziko du. 55.000 pieza arkeologiko, artistiko eta etnografiko gordeko dituzte orotara; momentuz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Donostiako San Telmo museoaren eta Kutxaren bildumak zein Gipuzkoako ondare arkeologikoa eta paleontologikoa gordeko dituzte 8.450 metro koadro erabilgarri dituen eraikinean. Etorkizunean herrialdeko museoaren sareari baliabideak eskaini ahal izatea da zentroaren helburua.

Euskal Herriko Musika Etxe Sareak kontsumo ohiturak aldatu nahi ditu. Gasteizko Jimmy Jazz aretoak, Miarritzeko Atabalek, Bilborockek eta Bermeoko Kafe Antzokiak jarri dute abian Euskal Herriko Musika Etxe Sarea egitasmoa. Helburutzat ditu, besteak beste, musikaren kontsumo ohiturak aldatzea, publikoa erakartzea, azpiegiturak zabaldu eta eguneratzea eta, oro har, kultura musikala babestu eta aberastea. Horretarako hezkuntza izango da oinarritzko osagaietako bat, prestakuntza, ekoizle, musikari zein publikoarena. Ikastaroak antolatuko dituzte, bekak, eskolaz kanpoko ekintzak, kontzertu didaktikoak...



MUSIKOTA.COM



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Pamiela argitaletxeak,
Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA XI. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 € · Bidaltzeko epea: irailaren 30a arte

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria),
Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea - 31013 Iruñea

☎ 948 326 535 · soltxate@pamiela.com · Arauak: www.pamiela.com



Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Margatàniaren hooligana naiz

L'Equip petit. Zuzendariak: Roger Gómez eta Dani Resines. Herrialde Katalanak. 9'24".

LERROOK idazten dituenak badauzka akats ugari eta horietako bat da realzalea izatea. Eta gauza jakina da, inor ez da Realekoa futbol ona ikustea eta beti irabaztea atsegin duelako: abertzaletasuna eta galtzaileekiko miresmena konbinatuta egiten zara txuri-urdira. Orokorrean futbol modernoan enpresa afera bihurtua dago ordea, eta partikulariki Donostiako taldearen presidente berria arma fabrikatzailea da, arrazoi pisuzkoak biak ere, nire realsozialismoa baztertu eta fede berri baten bila hasteko.

Basamortua zeharkatzea bezalakoa izan behar zuen lanak, beharrik bideoa parean jarri zaidala. Agertzen diren protagonista txikiak izenak: Pol, Eduard, Adrià, Martí, Emma, Nil, Gerard, Roger, Dídac, Cristian, Ivan, Xavier, Ruth eta Haritz. Haien futbol taldea: Margatània. Denboraldi osoan ez dute gol bakarria sartu. Eta kopuru hori behintzat gauza ziurra da. Jaso dituzten

golak aldiz... inoiz ez daude seguru, hainbeste izaten dira partidu bakoitzean. Baina hain justu horixe, galtzearen plazera azpimarratzera dator bideo labur hau. Ondo pasatzea da garrantzitsua eta Margatàniako jokalariek ederki pasatzen dute. Futbola horretarako *ere* bazen, ezta?

Roger Gómez eta Dani Resines kataluniarrek egindako hamar minutuko dokumental txoa da *L'Equip petit* (Ekipo txikia). Taldeko kideen gurasoei eta lagunei erakusteko prestatu zuten, baina sarearen bidez alde guztietara zabaltzen ari da. Nahiko modan dauden definizio altuko reflex kamera horietako batekin grabatua dagoela iruditu zait eta emaitza txukuna da oso. Barre xamurra ateratze diote realzale ozipindu honi behintzat. Ez da gutxi. ■

Bideoa ikusi nahi baduzue helbide honetan daukatzue aukera: <http://vimeo.com/25397042>



Z izpiak



ELHUYAR
edizitoak

SENDABIDE ALA IRUZURBIDE. MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA PROBAN

Trick or Treatment? Alternative Medicine on Trial liburuaren euskarazko itzulpena.

Egileak: Simon Singh eta Edzard Ernst

Eraginkorra ote da medikuntza alternatiboa? Proba zientifikoek emandako ondorioak.

15 € e-booka 11 €

Edzard Ernst egilearen hitzaldia:

Medikuntzan doktorea eta medikuntza osagarria irakasten duen munduko lehenengo pertsona.


Uztailaren 5ean. Miramar jauregian, arratsaldeko 7etan.

Informazio gehiago www.elhuyar.org webgunean



Atala

AMAIA UGALDE

Euskal Herria ezagutuz:
Zuiako Koadrila (Araba)

Naturaz, ikusi eta ikasi

Berde koloreko Araban gaude. Antzina laku bat zegoen haran zabal honetan. Zuiako Koadrila Gorbeia mendiaren magalean dago, herri txikiz osatuta. Mendian gora ibili, urtegi alboan lasai egon, artisau lanez ikasi... Esperientzia ugarigaz bueltatu daiteke norbera bertatik.

GORBEIAREN ALTZOAN daude Zuiako hainbat herri. Tontorrera igotzeko hainbat bide daude; Zarate eta Murua herrietatik igo daiteke, baita Gorbeia Parke Naturaleko Parketxetik ere. Parketxea Murgiatik gertu dagoen Sarria herrixkan dago. Interpretazio zentro ondoan aparkaleku handia, mahaia eta umeentzako olgeta-gunea daude. Parketxe barruan, Gorbeia inguruko informazio ugari, parkeko animalien bizimoduari buruzko datuak eta umeentzako jolasak aurki ditzakegu.

Parketxetik abiatuta, Baias ibaia-aren alboko bidea jarraitu daiteke Gorbeia igotzeko. Bide hori Bizkaia aldera, Orozkora joateko erabiltzen zuten antzina. Baias albotik joanda hiru ordu pasatxoan helduko gara Gorbeia tontorrera. Harrizko hainbat zubi eta aterpe aurkituko ditugu bidean.

Baias erreka ondoko bidezidorretik Arlobi ingurura ere joan daiteke; ikuspegi ederrak eta Arlobiko menhirra daude han. Ibili ahala bidea estutzen joango da eta harrizko zubi txiki batera helduko gara. Ibaia gurutzatu eta Arlobi gainerantz joko dugu. Bertatik menhirra ikusiko dugu; bost metroko garaiera dauka, eta 4.250 kiloko pisua. 2004an aurkitu zuten, hiru zatitan puskatuta lurrean. Jausita egon arren kontserbazio egoera onean zeuden zatiak, eta monolitoa burdinazko hagaxkaz eta porlanez konpondu zuten. Gara-



JUANJO HIDALGO (AUNIA KULTUR ELKARTEA)

Arlobiko menhirra, Brontze Aroko aztarna Gorbeia inguruetan.

bi baten laguntzagaz, berriro kokatu zuten orain dela 4.000 urte Brontze Aroan eraiki zuten lekuan.

Ezti Museoa eta Buztingintza Museoa

Murgian bertan eskualdeko ezti egileen elkarteak egoitza dauka, eta bertan Ezti Museoa dago. Iraila izaten da eztingintzarako sasoi onena, eta orduan egiten dute lan gehien ezti egileek. Museoa bertan ezti egiteko gela bat dago, eta elkarteak kideak txandakatu egiten dira lan egiteko. Lan hori bertatik bertara ikusteko, ideia ona izan daiteke museora gerturatu aurretik bertara deitzea eta ezti egiten noiz egongo diren galdetzea. Museoa erleen

artisau-lan horren inguruko informazioa dago, eta hainbat produktu erosteko aukera ere bai.

Murgia eta Gorbeia atzean utzita Legutiorako bidea hartuta, herrirako ederretatik igaro eta Urrunagako urtegira helduko gara. Legutioko Elosun, Ollerias auzoan Euskal Buztingintzaren Museoa dago. Buztingintza tailer zaharra 1711. urtetik zegoen Elosun, baina 1958an Urrunagako urtegiko lanak egin zituztenean, buztingileen lehengaia ur azpian geratu zen, eta ezin izan zuten zeramika lantzen jarraitu. Bertan galduta zegoen buztingintza tailerra berreskuratu zuten orain dela urte batzuk Blanca Gomez de Segurak. Berak buztingintza



Goiko argazkian, Zuiako Koadrilaren ikuspegi zabala. Eskuman, Ullibarri-Ganboako urtegia.



gintzan zelan lan egiten ikusi eta norbera tornoan jarduteko aukera ere badago (ikus ARGIAren 2.206. zenbakian Gomez de Segurari egin-dako elkarriketa).

Urtegien inguruan

Urrunaga eta Ullibarri-Ganboako urtegien inguruak aproposak dira

udako egun beroetan freskotasunaren bila dabilenarentzat. Ullibarri-Ganboakoa da bietan handiena, eta bere inguru guztian bidegorria dago, oinez zein bizikletaz aldapa bako txangoa egiteko egoki-egokia. Guztira 45 kilo-

metroko perimetroa dauka urtegiak, eta buelta osoko ibilbide bi egin daitezke; 33 kilometrokoa bata eta hamabikoa bestea. Zati txikiagotan ibilita ere gozatu daiteke paisaiatz, Ullibarri-Ganboa herri-gunetik Landara joanda, adibidez. Bainua hartzeko aukera dago urtegian, eta Landan bertan, dutxa eta sorosleak egoten dira uda garaian.

Txoko hauek eta, oro har, Zuia hobeto ezagutzeko, bisitaldi gidatuak eskaintzen ditu Koadrilak. Xehetasun guztiak, www.cuadrillazuia.com webgunean. ■

Gorbeia ezagutu eta bizi

Artzainekin mendian ardiak zaindu eta gero gazta egiteko prozesua ikusi, izarrei begira afaldu, Oroko santutegi alboan eskalatu, gauean animalien hotsak entzunaz ibilaldia egin... Horrelako esperientziak bizitzeko Gorbeia Central Park izeneko ekimena antolatu dute Gorbeia inguruko herriek.

Inguru honetara bertaratzeko direnak bizipen bereziarekin bueltatzeko asmoz sortu dute ekimena. Aukeran hemeretzi ekintza ipini dituzte. Mendiaren bi magaletako udalerriek, Gorbeialde Landa Garapeneko Elkartek eta Zuiako Koadrilak, antolatu dute, elkarlanean, Gorbeia Central Park.

visitas guiadas · bisita gidatuak 2011 Cuadrilla de Zuia / Zuiako Koadrila

RUTA 1 ROMANICO OLANO - S. DE ORO BELUNTZA - GOIKU	RUTA 2 CASAS TORRE GOPEGI - MARUGA MARKINA - LETONA	RUTA 3 CASCOS HISTÓRICOS LEGUTIO ARAMAIO	RUTA 4 EL PANTANO Y SU HISTORIA ULLIBARRI-GANBOA - PRESA DEZ ANTANO - NANCLARES DE GANBOA	OTRAS · BESTEAK ZURBANO · URBINA SARRIA
---	--	---	--	---

www.cuadrillazuia.com



Todo el año · Urte osoan

Mínimo: 4 personas
Gutxienez 4 lagun

¡visitas a la carta!
¡neurritra antolatutako bisitak!

Erreserbak · Reservas:

945 243 828

Estribaciones del Gorbeia / Gorbeia Inguruak [Álava / Araba]

Zuiako Koadrila / Cuadrilla de Zuia: 945 430 167 Eskualdeko Turismo bulegoa / Oficina Turismo: 945 430 440



Cuadrilla de Zuia
Zuiako Koadrila




Arabako Foru Aldundia
Euzko Legebiltzariaren Foru de Araba

EUSKADI

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Saldukeria egiten duena. Emakume gazteak. 2. Euskal Herriko ahapaldia, bat-batean botatzen dena. Aukera ura barik. 3. Emakumezko izena. Bozeramaile. 4. Donostiako hondartza. Zuhaitz mota. 5. Iridioaren sinboloa. Auzo ... topo, aurrez aurre. 6. Teilatuak egiteko erabiltzen den pieza. Erabakia hartu. 7. Arriskuari ihes egiten diona. Leku orotako. 8. Mugatutako denbora-bitartea. Elizan egiten den ospakizuna.

Goitik behera:

1. Mozte. 2. Ordu, garai. 3. Erloju, ordulari. Aldapa. 4. Idi, hitz-elkarketan. **Argazkian.** 5. Sexuari dagokiona. 6. Nolatan. Letra izena. 7. Euskal Artisten Elkarte. Larruzko xingola mehe. 8. Sari. 9. Zuberoako maskaradetako pertsonaia. 10. Larruazaleko gaixotasuna, bilgor-guruinen hantura du bereizgarri eta batez ere aurpegian izaten da. Errepikatuz, aldaba jotzearen onomatopeia. 11. Suari dariona Atarte, atalase. 12. ... gaineretik, ororen gainean. 13. Sinu, halabehar. 14. Erakunde belikoa. 15. Egurra.

Zeru ezkertiarra

Fidel Castro hil eta infernura joan omen zen zuzenean.

Handik astebetera, zeruko atea joka ari zirela ikusita Done Petrik atea zabaldu eta nor ikusiko parean eta... Etsaia!

– Hori duk hori aurpegi txarra, Txerren! Zer berri?

– Motel, motel, Castro izeneko bat bidali zidatean joan den asteen eta sartu orduko sekulako iraultza sortu zidak eta ez zakiat zer egin. Nire edadean ez nagok saltsetarako.

– Bidaliezadak denbora bate-rako, bitartean egoera baretzeko.

– Hurrengo batean itzuliko diat mesedea.

Castro ez zela itzultzen ikusita, hiru astera zerura igo zen Etsaia berriro:

– Petri! Ez al didak Castro itzuli behar ala?

– Itzuli? Bai zera! Aingeru guztien adiskide egin duk eta Jesukristoren lagun mina; hor zeudek egun guztia filosofiaz eztabaidatzen. Ama Birjina emakumeen eskubideen aldeko mugimenduaren buru egin duk eta pozez zorutzen zagok. Nola bidaliko diat, bada?

– Petri! Eta Jainkoak zer zioh honetaz guztiaz?

– Jainkoak? Baina zer diok? Jainkoa ez duk existitzen!

Sudokuak

Erraza

	7		3	4	6			9
	9			8			7	3
	3	6	7			4		
3	4	1	8	9			6	
		8				9		
	2			6	1	5	3	8
		2			8	3	9	
6	8			2			5	
7			1	3	4		8	

Zaila

	4		2			7		
	6	3						
				6	1	5		
8					7			
9		7				8		6
			1					9
		2	9	3				
						6	3	
		5			8		2	

Soluzioak

9	8	2	4	1	3	6	5	7
5	7	4	6	9	8	3	2	1
6	3	8	5	7	2	1	9	4
4	6	5	8	3	9	7	1	2
8	2	7	4	1	9	6	5	3
1	1	6	9	3	7	2	5	8
3	4	1	8	6	5	7	2	9
8	3	6	7	1	9	4	2	5
1	9	4	5	8	2	6	7	3
2	7	5	3	4	6	8	1	9

Erraza

Zaila

6	3	5	4	1	8	9	2	7
4	9	1	7	2	5	6	3	8
7	8	2	9	3	6	1	4	5
5	5	6	1	8	2	4	7	9
9	2	7	5	4	3	8	1	6
8	1	4	6	9	7	3	5	2
2	7	9	3	6	1	5	8	4
5	6	3	8	7	4	2	9	1
1	4	8	2	5	9	7	6	3

Ezker-eskuin: 1. Eroi, Neskak. 2. Bertsoa, Ake. 3. Ane, Eledun. 4. Kontxa, Orea. 5. In, Auzun. 6. Topoz. 7. Tola, Harraratu. 8. Epea, Elitzkizuna. 9. Donari. 10. Akne, Tok. 11. Kc, Atari. 12. Oroz. 13. Pami. 14. Oan. 15. Zura.

Goitik behera: 1. Ebakitze. 2. Tenore. 3. Oren, Ike. 4. It, Taloa. 5. Sexual. 6. Nolaz, De. 7. Eac, Uhal. 8. Donari. 9. Kauter. 10. Akne, Tok. 11. Kc, Atari. 12. Oroz. 13. Pami. 14. Oan. 15. Zura.

Euskarazko komunikabideak **DENON BEHARRA**

EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK

**Duten
garrantziaz
jabetzeko,
faltan izan arte
itxoiten dugu
maiz**



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Frantziako erlezainak sutan

FRANTZIAN Cruiser OSR izeneko pestizida onartu berri da, koltzaren haziak intsektuetatik eta onddoetatik babesteko. Syngenta enpresa suitzarrak ekoiztutako pestizidak hiru substantzia ditu oinarrian: batetik, Thiamethoxam intsektizida, eta bestetik, Fludioxonil eta Metalaxyl fungizidak.

Frantziako Erlezaintzarako Nazio Elkarteak argi gorriak piztu ditu, pestizida horrek erleengan izan dezakeen eragina dela eta. Beraien ustez, une honetan hain egoera larrian dauden erleentzat beste faktore negatibo bat izango litzateke Cruiser OSR.

Baina guztiak ez dira iritzi berekoak. Osasun Segurtasunaren Nazio Agentzia publikoak (ANSES) dioenez, pestizidak ez du eraginik izango erleen kolonietan, horiek une honetan nahiko osasuntsu baitaude. Diotenez, erleen kopuru orokorra ez da gehiegi aldatu azken urteotan, baina populazioen banaketa-ereduak bai: hirien inguruetan asko ugalduta, eta nekazaritza-eremuetan asko urritu. Eztabaida zabalik dago.



WWW.SILLON38.COM

Ranger robotak 65 kilometro egin ditu batera birkargatu gabe

RANGER LAU HANKA luze eta mehe dituen robota da, AEBetako Cornell Unibertsitateak sortua, eta berriki atletismo pista batean 30 orduz biraka aritu da, artikulu honen izenburuan azaldutako errekorra gainditu arte.

Aurreko errekorra iazko uztailera zen: orduko hartan, 23 kilometro egin zituen Bigdog robotak. Aurten 42 kilometroraino iritsi nahi zuten Bigdog jabeek, baina Rangerrek, 65 kilometro eginda, aurre hartu die.

Sei ordenagailu txiki eta dozenaka sentsore dituen robotaren pisua hamar kilogramokoa baino ez da, horietatik 2,7 litro ioizko bateriei dagokie.

Eta zertarako balio dute hala-ko errekorrak hausteko gauza diren robotek? Bada, batetik, beste planeta batzuetan egin daitezkeen misioetarako. Baina gure munduan ere aplikazio ugari izan ditzakete, ezinduen garraiogintzan adibidez.



RUINA.TAM.CORNELLE.EDU

Merkeagoa da CO₂-rik ez emititzea atmosferatik erauztea baino

AEBetako Amerikar Fisika Elkarteak, Robert Scolow ingeniaria buru dela, argitara emandako txostenean dioenez ekonomikoki justifikatzeko zailak dira atmosferatik karbono dioxidoa erauzteko erabiltzen diren edota erabili nahi diren teknikak.

<http://ttiki.com/29680> (Gaztelaniaz)

Aurrerapenak komunikazio eta prozesamendu fotonikoan

Seinale optikoak azkarregiak dira garraiatzen dituzten datuak prozesatu ahal izateko, baina seinalearen abiadura pixka bat moteltzea lortuko balitz, ziurrenik datu gehiago prozesatzeko modua izango da, sistemak gainkargatu gabe.

<http://ttiki.com/29681> (Gaztelaniaz)

Bolanterik gabe gidatu daitekeen ibilgailua

Valentziako Biomekanikarako Institutuak (IBV) ibilgailu berezia aurkeztu du egin berri den Europako Autozio Ingeniarien 13. Biltzarrean. Bolantea erabili ordez, pertsona ezindu askok ere erabil dezaketen tramankulu berezi baten bidez gida daiteke aipatutako automobilak.

<http://ttiki.com/29682> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Txinako Ezpeleta

ETXE KONTRAKO PAISAIAN zuhaitz eta arbola negartiz osatutako jauzia, aldaparen beheko barreneko muturrean aldatutako *Davidia involucrata* zuhaitzean amaitzen da. Honek goiko aldean dituen mainontzi guztien malkoak jaso eta xukatzen ditu. Ez da alferrik mukizapien zuhaitza (ingelesentzat *handkerchief tree* edo *pocket-handkerchief tree*, frantsesentzat *arbre aux mouchoirs*, espainolentzat *árbol de los pañuelos*, alemanentzat *Taschentuchbaum*...). Izen xelebre hau bere loreari zor dio. Maiatza aldera loreak multzoka irekitzen dira eta hauetako bakoitzak braktea pare ederra du. Mutur batetik zintzilikatutako arra beteko mukizapi zurizta batek hartuko lukeen itxura du braktea, baita joera ere: haizearen menturan jira-biraka hegan egiten du. Hegalaldi honek beste izen berezi bat ere eman dio zuhaitz honi: ingelesezko *dove tree*, usoen zuhaitza, alegia.

Makina bat zeresan sortu du zuhaitz honek azken bi mendeotan botanikarien artean: Cornaceae, Nysaceae edo Davidiaceae familietan sailkatzeko saltsa ez da oraindik behar bezala ondu, gaur egun gehienek aurrenekoartzat jotzen badute ere. 1826an Lapurdiko Ezpeletako Bergara etxean sortutako Jean Pierre Armand David Halsouet apaiz lazarista misiolariak Txinan topatu zuen. Zuhaitz honekin batera panda hartza, orein inperiala, urre-tximino sudurmotza eta beste espezie franko topatu zituen. Naturazale amorratua, misio lanak alde batera utzi eta Parisiko Natur Historiako Museoaren aginduetara jardun zuen. XIX. mendeko Europa eta Ameriketako ikerlari gosetien aldra nahikoa langaiz hornitu zuen eta ondorioz bere



WWW.ASPERUPGAARD.DK

omenezko *davidii* edo *armandii* abizena darama espezie ugari. Abizenaren ordeiz izena, *Davidia*, du ohore mukizapien zuhaitzak.

Davidia bezala, ederki asko doakio bai mukizapien zuhaitza izena. Loretzarren itxuragatik, baina baita urzalea delako ere, direnak eta ez direnak xukatuko lituzke... Tartekako ura du, ordea, gustuko. Etengabe urasetuta izaten diren buztin edo tupa lurretan, istinga edo zingira tankerakoetan, ez aldatu gero. Bestela zeuk astindu beharko duzu mukizapia, erail duzula jabetutakoan.

● Armand Davidi buruz areago jakin nahi duenarentzat, Kepa Altonagak idatzitako *Armand David, pandaren aita* (Elhuyar, 2001) liburua paregabea da.



JAKOBA ERREKONDO

Tomate sasoia

Egutera, eguzkilekua, eguzki-begia, eguzbegi, iruzki-pei, iruzpei, eki-jalkigaia, ekisargi edo eguzkitsu den edozein bazterretan tomatea, *Lycopersicon esculentum*, ederto etorriko da. Hormaren kontra eta ontzian egoteak izugarri lagunduko dio gaitzei aurre egiten, inguru guztia, lurra eta airea, lehor eta bero izango baitu. Lehor eta beroan gaitzak sortzen dituzten onddoek elorrio izango dute. Segurako Mendotza baserriko hauek duten itxurari erreparatu.

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Knickerbock, inoiz existitu ez zen idazlea



PERRY-CASTANEDA LIBRARY

Ezkerrean, Washington Irving idazlea. Eskuinean, New York Knicks taldearen 60ko hamarkadako irudia. Irvingek 1809an egin zuen marketin bitxian du jatorria saskibaloit taldearen izenak.

NEW YORK, 1809KO ABENDUAREN 6A. Washington Irvingek (1783-1859) *A History of New York from the beginning of the World to the end of the Dutch Dynasty* (New Yorkeko historia mundua sortu zenetik dinastia holandarrera arte), historiari eta politikari buruzko satira zorrotza argitaratu zuen. Baina lana salgai jarri baino lehen, kanpaina bitxi eta eraginkorra burutu zuen.

Liburua Diedrich Knickerbock izengoitiz idatzi zuen. Eta idatzi ondoren, New Yorkeko komunikabide guztietan berak asmatutako historialari holandarra desagertu zela zabaldu zuen. Hotel batean gela hartu, liburuaren eskuizkribua bertan utzi, eta Knickerbockek sinatutako ohar bat idatzi zuen: existitzen ez zen historialariari zerbait gertatuz gero, hoteleko jabeek izkribua argitaratzeko eta irabaziekin hoteleko kontua ordaintzeko baimena ematen zien.



SPORTING NEWS COLLECTION

Misterioz betetako auziak New Yorkeko biztanleen jakin-mina piztu zuen, eta, azkenean, idazlana argitaratzean, salmentetan sekulako arrakasta izan zuen. Irvingek marketin joko maltzurak emaitza ezin hobea izan zuen. Salmentez gain, lanak kritika bikainak jaso zituen; amarruak amarru, liburua ona zen. Eta benetan gertatutakoa azaleratu zenean ere, New Yorkeko herritarrek ez zuten, itxuraz, txarrera hartu. Berehala, *knickerbocker* hitza New York sortu zuten kolono holandarren oinordekoak izendatzeko erabiltzen hasi ziren eta, denboraren poderioz, New Yorkeko herritar guztien ezizen bihurtu zen.

Hala, 1946an, Basketball Association of America –NBAREN aurrekaria– sortu zenean, New Yorkeko saskibaloit taldeari *Knickerbockers* izena ipini zioten. Eta egun oraindik izen bera du, *Knicks* laburduraz ezagunagoa bada ere.

Arrastoak


Hautsak harrotu ditu Gandhiren biografia batek

JOSEPH LELYVELD, 1986an Pulitzer saria jaso zuen kazetariak argitaratu duen Gandhiren biografiak –*Great Soul* izenburua du– polemika piztu du Indian.

Batetik, buruzagi indiarrek, Hegoafrikan bizi zenean, zuluei buruz idatzi zituen kutsu arrazistako hitzak jaso ditu kazetari estatubatuarrek: “Problematikoak eta oso zikinak dira, eta animalien modura bizi dira”.

Bestetik, Hermann Kallenbach arkitektoari bidali zizkion bost gutun bildu ditu, eta gutunek, itxuraz, bien arteko harreman homosexuala islatzen dute. Gogoan izan homosexualitate legez kanpkoa zela Indian 2009ra arte.

Erreakzioak hasi dira eta Gandhiren sorterrian, Gujarat estatuan, Lelyvelden obra debekatu dute dagoeneko.



HARPER COLLINS



Martin Garitano
Gipuzkoako ahal-dun nagusia

«Aldaketak zergatik izan behar du beldurgarria?»

Gipuzkoako Aldundiko eraikinaren atea itxita dago. Larunbata da. Barruan baina, Martin Garitano (Bergara, 1963) ahal-dun nagusi berriak elkarriketak eskaintzen dihardu: “Atzo etorri ginen lehenengoz etxe honetara, astelehenean hasiko gara laneko martxan”. Herritarren parte hartzean sakontzea eta bake prozesua bultzatzea izango ditu zeregin nagusienak.

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

23 botorekin izendatu zaituzte ahal-dun nagusi. Babes hori ikusita, zuen helburuak asebetetzeko moduan izango zaretela uste duzu? Gipuzkoara aldaketa ekartzeko moduan izango zaretela?

Bai, nik uste dut hein handi batean baietz. Beste kontu bat izango da

gure helburuak lortzeko beste alderdi batzuekin negoziatu beharra, hori ezinbestekoa da. Baina hori gertatzen da Gipuzkoako Foru Aldundian eta baita Bizkaikoan ere, emaitza berdintsuak dauzkagu: guk 23 eta Bizkaian 22, beraz helburuak asetzeko negoziatu egin beharko dugu.

Zergatik ez zarete oraindik iritsi Aralarrekin Gobernu akordio batetara?

Guk proposamena luzatu genien parte hartzeko Batzar Nagusietako mahaian eta baita Gobernuan ere. Printzipioz ados geunden alde biak; mahaikoa bete da. Gure egitasmoak oso antzerakoak dira gobernazioa-



"Ez dugu independentzia mahai gainean ipiniko fiskalitatea aldatzeko momentuan, horretan malgutasuna behar dugu izan".

ren inguruan eta hurrengo eguntan, gobernua osatzeko prozesuan, berriro beraiekin hitz egingo dugu.

EAJrekin eta PSerekin akordio puntualetara iristeko asmoa duzue, batez ere akordioak EAJrekin lehenetsiko dituzue...

Bigarren indarra delako, logikaz.

Akordio puntual horietara iristeko zeri uko egiteko prest zaudete eta zer ez da negoziagarria?

Hori gai bakoitzean ikusi beharko da. Ikusiko dugu bakoitzak noraino eraman dezakeen negoziazioa eta nondik ezin den mugitu, baina ez da printzipiozko negoziaketa bat, gai zehatzetan oinarritua baizik.

Eta printzipioei dagokionez?

Gu abertzaleak gara, independentistak gara, soberanistak gara eta ezker-tiarrak gara. Horiek dira gure printzipioak. Baina ez dugu independentzia mahai gainean ipiniko fiskalitatea aldatzeko momentuan, horretan malgutasuna behar dugu izan.

Funtzionamenduaren aldetik, zer aldatuko da Diputazioan Bildurekin?

Alde batetik, Gobernua murriztuko dugu, hori behin eta berriro esan

"Benetan diotsut, ez dakit zein den ahaldun nagusiaren soldata, ez dut galdetu"

dugu. Eta bestetik, funtzionalitateari dagokionez, guk parte hartzea bermatu nahi dugu. Horretarako mahai sektorialak antolatuko ditugu gaiak tratatzeko; hor erabaki batzuk hartuko ditugu eta erabaki horiek Batzar Nagusietara eramango ditugu. Batzar Nagusiek erabakiko dute horiek aurrera atera edo ez: Batzar Nagusietatik agindua ateratzen bada, guk hori kudeatuko dugu. Hori da aldaketa nagusia. Hori eta Gobernuaren konposaketa.

Parte hartzeko foru arau bat martxan jarriko duzuela aipatu duzue.

Badago parte hartzeko foru arau bat. Aldatu, zabaldu eta oraindik gehiago zehaztuko dugu; eta martxan jarriko dugu.

Ahaldun nagusiak bere soldata jaitsi-ko du?

Ez dakit zein den ahaldun nagusiaren soldata, baina bai, badugu planteamendu bat horren inguruan. Hala ere benetan diotsut ez dakidala zein den nire soldata, ez dut galdetu.

Zer ondorio atera beharko lukete ezker soberanistek M-15 mugimendutik?

M-15 egungo egoeraren aurkako iritzi mugimendu bat da. Euskal Herrian egungo egoeraren aurkako iritzi mugimendua badago, aspalditik, eta nik uste abertzale ezkertiarrek haserre horri eraketa politikoa eman diotela.

"Proiektu estrategiko" delakoak defendatzeko prest azaldu dira oposizio alderdiak. Batzar Nagusietan oposizioaren balizko gehiengo osoei, nola erantzungo die Diputazioak?

Diputazioak ezin du Batzar Nagusiek erabakitzen dutenaren kontra egin. Gu exekutiboa gara, baina Gipuzkoan parlamentua Batzar Nagusiak dira. Beste kontu bat jakin beharrekoa da, azpiegitura erraldoi horietaz hitz egiterakoan, adibidez Pasaia kanpoko kaiko azpiegitura hori ez dela egingo, baina ez guk esaten dugulako, Espainiako Gobernuak ere esan duelako ez daukala sostengurik, ez ingurumen arloan ezta ekonomikoan ere; beraz guk hori ez dugu inposatuko. Hondarri-

biko aireportua zabaltzea, Espainia-ko Gobernuak honezkero agindu du ez duela egingo. Eta errauskailuarekin guk proposatzen dugun moratoriaren inguruan, nik uste adostasun asko lor litezkeela, baita Batzar Nagusietan ere.

Pasaia-ko Portu Agintaritzako presidenteak berrikitan esan du ingurumen iraunkortasun txostena aurrera doala, eta martxa onean joan ere... Arazo bat dauka Espainiako Gobernuarekin.

"Errauskailuaren moratoriak izango lukeen kostua negoziatu egin beharko da bankuekin"

Errauskailuari dagokionez, aurreko Aldundiak hainbat konpromiso eta kontratu sinatu zituen bankuekin, eta obra ugari ere esleitura daude. Horiek zertara lotzen zaituzteten aztertu duzue?

Bai, baina moratoria horrek izango lukeen kostua negoziatu egin beharko da bankuekin. Zeren eta bankuekin ez dugu harreman hori soilik, harreman oso estua daukagu beste gai askotan, eta bada negoziatzeko biderik. Guri kasu honetan interesatzen zaiguna, beste kasu batzuetan bankuei interesatuko zaie.

Usurbilen, atez atekoaren erreferenduma sistema ezarri eta gero egin zen, jendeak ikus zezan zein eredu zeuden.

Ez dugu inposatuko ez atez atekoa, ez bosgarren kontenedorea, ez

errauskailua. Guk moratoria horren bitartez eztabaida publikoan oinarritutako prozesu bat ireki nahi dugu; eta informazio guztia eman eta gero, eztabaida sozial hori gartatu eta gero, herriari galdetuko diogu. Herriak esaten duena izango da aurrera aterako duguna.

Badaude Bildu barnean alderdi batzuetako sektoreak zenbait azpiegiturekiko beste iritzi bat dutenak, horiek zenbaterainoko eragina izan dezakete erabakietan?

Erreferenduma ez dugu Bildu barnean egingo, erreferenduma Gipuzkoan egingo dugu eta gipuzkoar guztiok emango dugu bozka.

Aldundia bake prozesuaren eta normalizazio politikoaren zerbitzura jarriko duzuela adierazi duzue. Zein izango da lehentasuna arlo horretan?

Gure lehentasuna da euskal gizartean eragile politiko eta sozialen artean ematen ari diren aurrerapausoekin bat joatea eta ez aurka jartzea. Beraz, dauzkagun tresna politiko guztiak prozesu horren alde jarriko ditugu.

Batzar Nagusietako hitzaldian aipatu zenuen gatazkaren "aurpegi ezberdinekin" lan egin behar duzuela. Ikusita, biktimen elkarteek edo PP alderdiak, Bildu instituzioetara iritsi denean hartutako jarrera, zer egin behar luke Aldundiak zubiak eraikitzeke?

Denbora pasa ahala, eta gertakariak aurrera joan ahala, horiek ere ziaboga bat egin beharko dute, eta jarrera aldatu beharko dute. Hemen gauzak ez dira alferrik gertatzen, eta

Motzean

Markel Olano:
Zintzoa.

Alfredo Pérez Rubalcaba:
Gaiztoa.

Brian Currin:
Emankorra.

Jesús Eguiguren:
Emankorra.

Aurore Martin:
Laguna.

Arnaldo Otegi:
Oso laguna.

gertatuko direnak... Horrek, euren egungo intransigentziatzeko posizioa aldaraztera mugituko ditu, seguru nago.

Jarrera aldaketa beraien esku dago. Baina Aldundiaren esku zer egon liteke?

Guk ezin dugu bestearen posizioa aldarazi. Gure postura malgutasun osoarekin defendatuko dugu eta espero dezagun intransigentsian instalatuta dauden horiek aldatzea beren jarrera; hor aurkituko gaituzte.

Zer iruditzen zaizu alderdi sozialista izaten ari den papera bake prozesuan?

Alderdi sozialistaren barnean jarraera ezberdinak daude, batzuk beste





Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.







BIZKAIA
BIZIA

batzuk baino mesfidantza handiagoa erakusten ari dira. Baina une honetan disimulu asko dago eta oraindik ez dira benetako posizioak argitaratu.

Euskarazko hedabide ez publikoek eskaera egin zieten erakundeei babes gehiago eman eta diruz laguntzeko. Aldundiaren jarrera alde horretatik zein izango da?

Euskararekiko gure jarrera aski eza-guna da: laguntzearen aldekoa. Zenbakiez ez gara hitz egiten hasi; aurreko egun batean izan ginen euskalgintzako eragileekin eta prozesu bat ireki dugu informazioa jaso, lehentasunak ezagutu, eta horri ahal den neurrian erantzuteko.

Batzar Nagusiek erabaki zuten publizitatearen %15 bideratzea hedabide horietara, baina hauek inplikazio gehiago eskatu zuten Gipuzkoako errealtate soziolinguistikoa kontuan hartuta. Noraino iristeko prest egongo litzateke Aldundia hori laguntzeko?

Hedabide horiekin bildu beharko gara zehazki gai horretaz hitz egiteko. Gu ez gara diruaz hitz egiten hasi, baizik eta gure jarreraz eta filosofiaz. Diruaz orain hitz egin beharko dugu eta horretarako propio bilduko gara.

Patxi Lopezek uztaillean ahaldu nagusiekin biltzeko asmoa du erreforma fiskalaz hitz egiteko. Zuk aipatu izan duzu harmonizazio fiskala



“Gerkatariak aurrera joan ahala, intrantsigentziazko posturetan daudenek euren jarrera aldatu beharko dute”.

Eusko Legebiltzarrean erabaki beharko litzatekeela. Biler horretara zer eramango duzu karpetan?

Pozten gara Patxi Lopez etortzea guk orain arte defenditu ditugun jarreretara. Orain arte, politika fiskalaren erreformaz guk bakarrik hitz egin dugu eta batzuk deskalkifikatu egin gaituzte horregatik. Aste bete edo bi aste dira Patxi Lopezek gauza bera esan duela, guk defenditu ditugun posturak defendatzeko proposamenak egin dituela. Mahai horretara eramango dugu defenditu izan duguna: batetik, fiskaltate aldatu behar dela, eta bestetik, harmonizazioak legebiltzar demokratiko batean behar lukeela egon eta ez OCT [Tributuen Kooperaziorako Organoa] delako horretan, hau da, hiru diputatuak eta lehendakaria.

Gipuzkoa Aurrera-renak egin du?

Ez dugu exajeratuko. Guk esan dugu Gipuzkoa Aurreraren eredu ez dela gure eredu. Ez dugula nahi lobby pribatu batek Gipuzkoarako erabakiak hartzea. Erabakiak Batzar Nagusiek eta Diputazioak hartuko dituzte, gu baikara gipuzkoarren iritzia ordezkarri. Gipuzkoa Aurrera ez da gipuzkoarren ordezkarria eta ezin da izan itzalean mugitzen den gobernu bat.

Zuen programan hainbat neurri proposatzen dira enpresa munduari zuzenean eragingo dietenak. Enpresarien ordezkariekin harremanetan

jarri zarete beraien iritzia jasotzeko? Termometroa jarri duzue?

Kontaktuan jarri ginen kanpainan zehar Adegirekin, eta esan ziguten beraien irizpidea zela instituzioak osatu arte alderdiekin ez biltzea; euren ohitura 35 urtetan hori izan da, alderdiekin ez, baizik eta instituzioekin biltzea. Oraintxe etorri gara lehen aldiz etxe honetara eta oraindik elkarrizketak besterik ez ditugu egin. Segituan hasiko gara laneko martxan, eta bai, Adegirekin biltzeko asmo osoa dugu.

“Hedabide ez publikoekin bildu beharko dugu beraiek egindako eskariak zehazki hitz egiteko”

Gipuzkoaren “blokeoaz” hitz egiten dutenen aurrean, lasaitasunerako mezua ari zarete zabaltzen.

Gauzak aldatu daitezke era natural batean, inolako alarmismorik gabe eta jendearen lasaitasunerako. Aldaketak zergatik izan behar du txarra edo beldurgarria? Zergatik izutu behar da jendea, jendarteak eskatzen digun aldaketa aurrera eramaten baldin badugu? Ez gara aldaketa egitea erabakitzen duen elite bat, jendartearen ordezkariek gara eta jendarteak aldaketa hori eskatu egin du, horregatik gaude gu hemen. Orduan, lasaitasuna naturaltasun osoz eskatzen dugu. ■

Motzean

Bidesariak:
Alternatibarik ez badago, ez.

Kutxen fusioa:
Bai, baina ez horrela.

Tabakalera
Zabala euskal kultur egileentzat.

Hondarribiako aireportua:
Txikia.

Prailehaitz:
Astakaeria bat.



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Santiago Alba Rico

«Arabiar munduaz genuen irudia kolokan dago»

Filosofoa, idazlea eta ezkertiarra dugu Santiago Alba Rico (Madril, 1960). Badira hogeit hamar urte herrialde arabiarretan –Egipton eta Tunisian– bizi dela. Bertako matxinadez egindako hainbat hausnarketa jaso ditugu elkarrizketa honetan.

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

Arabiar matxinadek ba al dute ezer komunean?

Badira, Bahreinetik Mauritaniaraino, herri horiek guztiek konpartitzen dituzten osagaiak. Alde bate-tik, oso diktadura basatiak jasaten dituzte. Bestaldetik, biztanleria gaztea dute oso. Gazteenak, etorkizun-ik gabeko bizitzak eta miseriak kaltetuta, urteetan zehar erreprimi-tu eta umiliatuak izan ondoren, matxinatu egin dira diktaduren kontra. Nazionalak, sozialak eta demokratikoak dira matxinadak; hiru kontzeptuak elkarrekin lotuak dira. Bigarren independentzia baten aldeko taupadak dira: XX. mendeko bigarrenengo zatian, uztarri kolonialetik askatu omen zituzten prozesuek lortu ez zuten benetako independentzia eskuratu nahi dute egun. Berez jaiotako matxinadak dira, eta azkar hedatu dira Tunisia-tik beste herrialde arabiarretara: askotan, ahaztu egiten dugu arabia-rrek duten elkertasun organikoa oso indartsua dela.

Horrenbeste urtetako diktaduren ostean, bada herri horietan antola-tuta dagoen mugimendu edota alderdirik?

Ezkerra txikitua, deuseztatua eta sistematikoki erreprimiua izan da. Hala ere, Tunisia edota Egipto bezalako herrietan, klandestinita-tean lan egiten segitu du. Dena dela, indar politiko horiek guztiak, baita islamistak ere, matxinadek ezustean harrapatu dituzte. Hasie-

ran, matxinaden atzetik joan ziren eta, aurrerago, matxinoek hartuta-ko eremu fisikoak –Tunisiako kas-bah, Kairoko Tahir plaza– baliatu dituzte gazteak politikoki hezteko. Gertaera hauek elkarlanean aritze-ko itzelezko aukera sortu dute. Arabiar mundua lozorroan edota muturreko islamismoak menpera-tuta zegoela pentsatzen zuen ezker eurozentrikoaren aurrean, hara non agertzen zaizkigun guztiz demokratikoak diren matxinadak, islamismoa joko-z kanpo utziaz. Muturreko islamismoak ezaugarri epelak eta demokratikoak hartu behar izan ditu. Orain arte arabiar munduaz genuen irudia kolokan dago.

Diktadura horiek dituzten baliabide errepresiboak kontuan hartuta, irabazterik al dute matxinoek?

Inork ez zituen espero mugimendu hauek. Ezta oraindik Bahreingo edo Yemengo diktadoreak soste-n-gatzen dituzten potentzia handiek ere. Egun, eskua sartze-ari sekula utzi ez dioten potentziak altxa-menduak indargabetzeko ahalegi-netan ari dira. Leku batzuetan, indar militarra erabiltzen ari dira era paradoxikoan: Libiako matxi-noei laguntza ematea, matxinadak

deuseztatzeko zein Tunisia eta Egiptori arazoak sortzeko modurik onena da. Afrikako iparraldean Mendebaldeak dituen interesak indartsuak dira oso. Europar Bata-sunak eta AEBek ez dute nahi beren interesak arriskuan jar ditza-keen haustura subiranorik. Beste herrialde batzuetan, berriz, altxa-menduen garapena oztopatu nahi dute sekulako errepresioa soste-n-gatuz. Hala ere, Ekialde Hurbil berri baten atarian gaude. Egipton, oraindik gobernu militarra badute ere, Mubarak epaitze-ari daude eta Rafahko muga zabalduko dutela iragarri dute; bat egiten dute adis-kidetze palestinarrekin. Tunisian, lau hilabetetan, Espainian 35 urte-ko trantsizioan baino gauza gehia-go lortu dute.

Tunisian ez bezala, gerra dugu Libian.

Libiakoa ondo kontatzeko beharra dago. Otsailaren 14an, Tunisiako-ak bezalako protestaldiak hasi ziren, gazteek gidatuta. 17an, Ben-gassin, sarraskia izan zen; hainbat hedabidek airetik egina zela esan bazuen ere, Gaddafiren miliziarrek egin zuten eraso. Zenbait milita-rrek populazioa babestea erabaki zuten, manifestariei kalashnikov eta obus zaharkituak emanez, abantaila gutxi da hori, ondo armatuak dauden milizien kontra. Bestalde, hor daude Gaddafik esandakoak: Tunisiari eta Egiptori leporatu zien gazteak kalera “dro-gatzera” irteten araztea. Tunisiaren

**“Tunisian, lau hilabete-
Espainian 35 urte-
ko trantsizioan baino gauza
gehiago lortu dute”**



“Arabiar munduan egon daitekeen edozein demokrazia mota eta Israelgo Estatu ez dira bateragarriak.”

aurkako gerra ere iragarri zuen, oraindik abian dagoena –mugako postuak bonbardatzen ari dira–. Urtarrilaren 14an, Ben Ali kargutik bota zuten arren, Gaddafik bera sostengatzen segitu zuen, esanez tunisiarrek izan zezaketen agintaririk onena zela eta miliziak hara bidaliko zituela mehatxu eginenez. Estatu hauen alde petrolio da: Libia petrolio eta gas hornitzaile ezinbestekoa da; Europak ezin zuen onartu hornikuntza etetea, eta Sarkozyk zirikatuta, erre-boltarien aldeko jarrera hartu zuen. Baina egoera militarrek bira eman zuenean, jarreraz aldatzeko beranduegi zen, matxinoak sostengatu behar zituzten nola hala, eta tartean NATO sartu zuten. Zoritxarreko erabakia izan da: libiarrentzat, arabiar matxinadentzat eta erreboltarentzat berarentzat ere. Gaddafirekin negoziatzeko arazorik ez du Europak –Yemen-go edota Bahreingo diktadoreak sostengatzen dituen horrek–, baina Tunisian eta Egipton gertatutakoak ikusita, ustezko diskurtso

demokratikoarekin jarraitu behar izan du.

Zein da Israelen rola?

Iritzi publikotik at geratu dela badirudi ere, arabiar munduan gertatzen den orok eragina dauka Palestinako gatazkan, eta gertaera guztien atzean Israelen indarra dago. Israel, egun, matxinadek ikararuta dago, eta haiek deuseztatze-ko baliabide guztiak erabiltzen ari da. Batzuetan zuzenean eta bestetan aliatuen bidez. Etsaiak diren arren, argi utzi du Siriako El Assaden erregimena dela izan dezakeen aliaturik onena. Ez du ezer egin erregimen hori aldatzeko; alderantziz, ezkutuan sostengatzen du. Egipto dagoeneko ez da aurreko aliatu bera, egungo gobernuak bat egin behar baitu herritarren zenbait eskaerarekin. Egipto da Israe-

len gas hornitzaile nagusia –kontratu lotsagarrieci esker–. Aldiz, El Assad, Israelen aurrean jarrera gogorragoa duten herritarrek mehatxatuta dago. Izan ere, El Assadek Israelgo mugak zaindu baino ez du egin, sekula ez du Golan zinez eskatu. Jarrera epel hau siriatarren egonezinaren iturrietako bat da. Oso momentu interesgarria da, eta Israelen ideologia zein historia kontuan izanik, batek daki honen erantzuna zein izango den.

Eta Palestinan nola eragin du horrek guztiak?

Fatahren eta Hamasen arteko adiskidetzea matxinaden ondorio zuzena da. Egoera horretan, Israelek kontrairaultza elikatzea normala da. Ikusi beharko da AEBek hartzen duten jarrera: azaleko aldaketak onartu ditzakete, publikoki behintzat, herri mugimenduek presionatuta baitaude. Baina, arabiar munduan egon daitekeen edozein demokrazia mota eta Israelgo Estatu ez dira bateragarriak. ■

“Tartean NATO sartzea zoritxarreko erabakia izan da, bai libiarrentzat eta baita erreboltarentzat ere”

Jokin Melida

«Arantzako barnetegian egin nuen topo benetan euskal munduarekin»

HABEko hizkuntza probetan epaile lanetan harrapatu dugu Jokin Melida euskara irakaslea. Mahaia ondo ezagutzen du beste aldetik ere 34 urteko irundarrak, euskaldun berria baita, euskaltegian eta barnetegian ikasia. 16 urtera arte, bere giroarekin zerikusirik ez zuen “mundu paraleloa” zen euskararena.

Testua eta argazkia:

MIKEL GARCIA

Oso berandu arte ez zenuen ia harremanik izan euskararekin.

Hala da. Ama Irungoa da eta aita Palentziakoa; amak euskara ikasi du gerora, irakaslea denez eskolak emateko, baina txikia nintzenean ez bata ez besteak ez zekien euskaraz eta A ereduan eskolatu ninduten, Irungo Dunboa ikastetxean. Garai hartan ez zen orain bezala, denak ziren A eredukoak, ikastola izan ezik, eta orduan ikastolarekiko aurreiritzi asko zegoez, gurasoek ni Dunboara bidaltzea erabaki zuten. Asteaz ordubete ematen genuen euskara, abestiak eta halakoak, eta 14 urterekin Oinarritzko Hezkuntza Orokorra bukatu genuen gai izan gabe euskaraz esaldi oso bat zuzen esateko. Batxilergoa ere A ereduan egin nuen eta 3. mailan, 16 bat urterekin, euskaltegira joan nintzen lehenengoz.

Ordura arte erdalduna al zen zure ingurua?

Bai, familia eta lagunak erdaldunak ziren —euskaldun berriak gara hiru anaiak—. Nire ikaskide bat euskalduna zen, baina horri “el vasco” deitzen genion. Imaginatu. Niretzat euskara zen hemen batzuek hitz egiten zuten hizkuntza, mundu paralelo bat, eta beharrik ere ez nuen sentitzen, edaraz inongo arazorik gabe moldatu nintekeelako nire inguruan. Azken finean, tes-



“14 urterekin Oinarritzko Hezkuntza Orokorra bukatu genuen gai izan gabe euskaraz esaldi oso bat zuzen esateko”.

tu inguruak asko baldintzatzen du.

Eta zergatik erabaki zenuen euskara ikastea?

Euskarazko musika taldeak entzuten hasi nintzen, Negu Gorriak eta horrelakoak, eta nik uste sentsibilizazioa, hasiera batean behintzat, hor sortu zela. Kantuetako hitzen esanahia jakin nahi nuen, beste mundu hori ezagutu. 16 urterekin, hilabeteko ikastaro trinkoa egin nuen udan. 4. urratsean sartu nintzen, maila baxuarekin, aintzat hartuta HABE1 profila 6. urratsa gaindituta lortzen dela. Hurrengo urtean berriz ere errepika-

tu nuen, 5. urratsean, eta unibertsitatera joan aurreko udan, 17 urterekin, barnetegira joatea erabaki nuen. Hori izan zen egiazko bultzada, eta shocka, Arantzako barnetegian benetan egin nuelako topo euskal munduarekin eta euskararekin. Ikusi nuen euskara nolakoa zen benetan, konturatu nintzen sarri gauzak ez direla esaten idazten diren bezala, ikasitakoa baino aberatsagoa dela hizkuntza... Oraindik gogoratzen dut bertako batengana hurbildu eta galdetu niola, nire euskara txukunean, “ze, egunkaria irakurtzen?” eta berak, “ez motel, periodikoa leitzen”. Hurrengo urtean

ere egonaldia errepikatu nuen Aran-zako barnetegian.

Aldi berean, Euskal Herrian bizi ginela, berezko kultura eta hizkuntza genuela... Horri guztiari buruzko kontzientziazioa hartzen hasia nintzen institutuan —azken finean, hizkuntza ez da soilik komunikazio tresna bat, bihotzeko zerbait ere bada—, gainera lagunez aldatu nuen sasoi hartan eta giro euskalduneari murgildu nintzen. EGA atera ostean, gizar-te hezitzailea naizen aldetik, Hondarribiko institutuetan Gizarte trebetasunak eta Heziketa afektibosexuala irakasten hasi nintzen eta euskaraz lan egiteko ohitura hartu nuen.

Bakoitzak bere prozesua eta bere erritmoak ditu, nire ibilbidean faktore asko elkartu ziren, barne eta kanpo faktoreak. Euskaltegiko ikasleek galdetu ohi didate ea noiz iristen den momentu hori pasatzen zarena gaztelaniaz pentsatzetik euskaraz pentsatzera, itzulpen mentalik egin behar ez izatera. Bada, ez da egun batetik bestera gertatzen, baina barnetegian jada esaten zidaten, 'gaur euskaraz egin duzu amets, Jokin, bakarrizketan ari zinen gauean'. Eta nik esaten nien amesgaiztoa izango zela, kar, kar, kar. Hori izan zen hasiera, batetik bestera igarotzeko lehen urratsak. Hizkuntza ikasi nahi duen edonori barnetegira joatea aholkatuko nioke, benetako murgiltzea hor ematen baita.

Antxeta Irratian ere aritu zinen esatari.

Bai, lagun batekin sexualitateari buruzko irratiaioa egin nuen eta gai teknikoak euskaraz ongi nola komunikatu lantzeko balio izan zidan. Hitz egiteko beldurra galtzea funtsezkoa da, eta hor txartel gorria atera behar zaio euskaldun zahar askori, euskalduntze prozesuan ari direnei akatsak zuzentzen dizkietelako kasik barre eginez eta lotsaraziz. Kontrakoa egin behar da, hitz egitera bultzatu.

Euskara 16 urterekin ikasten hasi eta euskara irakasle bihurtu zara. Mitoa al da euskara ikastea zaila dela?

Euskara ez da zaila. Ingeleseko aditza errazagoak dira gaztelaniazkoak eta euskarazkoak baino, ez direlako kasik deklinatu behar eta abar, baina bestela hizkuntza guztiak dira zailak edo errazak norberaren motibazioaren eta testuinguruaren arabera. Bes-

talde, niri erronkak asko gustatzen zaizkit eta hau horietako bat izan da: euskara ikasi badut, zergatik ez dut hizkuntza hori irakatsiko? Gainera, euskalduntze prozesua bizitu dudanez, oso baliagarria da ikasleak eta beraien ezintasunak ulertzeko. Ikasleei kontzeptuak barneratzen laguntzeko, bere garaian erabili nituen teknikak aprobetxatzen ditut.

"Askotan bi mundu paralelo dira, bakoitza bere burbuilan, bai erdal mundua eta bai euskal mundua, eta batzuetan topo egiten dute erdibidean, gu bezalako pertsonengan, euskaldun berriengan"

Zer ekarri dizu euskara jakiteak?

Erdal testuinguruan bizi nintzen, eta euskarak euskal munduko ateak ireki dizkit: pertsona berriak ezagutzeko balio izan dit, sentsibilitate eta kultura oso bat ezagutzeko. Euskal kantautore zale amorratua naiz (Laboa, Lertxundi, Peio eta Pantxoa...) eta ez badirudi ere, asko ikasten da kantetako hitzetatik. Euskarazko prentsa irakurtzeko ere —eta beraz mundua beste ikuspegi batetik ikusteko— baliagarria izan zait, eta tabernan zerbitzaria ere banaizenez, gaztelania baino gehiago erabiltzen dut euskara bezeroekin. Irunen euskaldun ugari dago, baina armairuan daude asko, eta dakitenean zuk euskara badakizula, euskaraz egiten dizute. Bestela, joera izaten da lehenengo hitza erdaraz egitea.

Nolakoa izan da zure esperientzia euskaltegiko irakasle gisa?

Euskaltegian 2004tik aritu naiz lanean. Oiarzungo AEK-n lehenik eta Irungo Herri Jakintzan orain. Denetarik dugu: titulua atera nahi duten gazteak, euskara hobetu nahi dutenak, zerotik hasten direnak —kanpotik etorri direlako batez ere—... Nire profila, A erduan ikasitakoena, zaila da ikustea gaur egun. Oro har, Oiarztunen sentsibilizazio handiagoa dago, edo arraro eta desberdin ez sentitzeko ahalegina; eta

Irunen beharra dago sarri, ikasketek edo lanak bultzatuta, baina Irunen, arraro euskaraz egiten duena sentitzen da hainbat denda eta lekutan, ez alderantziz. Dena den, gertatu zait txikitari nirekin ikasi zutenekin elkartu eta orain euskaraz aritzea, haiek ere ikasi dutelako. Askotan bi mundu paralelo dira, bakoitza bere burbui-lan, bai erdal mundua eta bai euskal mundua, eta batzuetan topo egiten dute erdibidean, gu bezalako pertsonengan, euskaldun berriengan.

Zer moduzko euskara maila dago Irunen?

Hobetzen ari dela esango nuke. Irunen gazte koadrila bat euskaraz hitz egiten ikus dezakezu gaur egun, hori ez zen ohikoa duela urte batzuk. Haur parkeetan ere geroz eta gehiago entzuten da euskara, eta eskoletan D ereduak du arrakasta gehien. Dena den, asko falta da oraindik egiteko, batez ere erabilerari dagokionez. Udalak euskararekiko duen jarrera ona dela esango nuke, baina askotan erritmo kontua da. Euskara bultzatzeko aurreikusita dituzten ekimen batzuk azkarra-egin beharko lituzkete.

Eta zer datorkizu burura ikusten duzunean euskaldun zahar bat, txikitatik euskara jaso duena, baina gaur egun euskaraz kaskar egiten duena?

Pena pixka bat ematen dit. Testuinguruak bultzatzen zaitu azkenean, eta hemen askotan euskaraz hasi baina gaztelaniaz bukatzen dugu. Eta euskaraz txarto egiten duen baten bat baldin badago lagun taldean, gainerako guztiak erdaraz egitera bultzatzen ditu maiz. ■

SOLOZABAL
*Eskura ezazu teorikoa 5 egundean
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solzabalautoeskolak.es

'Euslandia'

MIRIAM LUKIK argitaratu du *Euslandia* izeneko liburua, Mondragon Unibertsitatearen eta Lankuren lankidetzari esker. Euskal Kulturgintzaren Transmisioa Graduondokoa egin eta gero bertako antolatzaileek proposatu zioten han jasotakoa papereratzea. Liburuak euskal kultura eta identitatea ditu ardatz, eta egileak berak esan duenez, tesi bat baino sinesmena jasotzen du liburuak, eta galderak ugari.

**Hendaia ondoen**

KONTSEILUAK Ipar Euskal Herrian egindako azterketan Hendaia lortu du puntuazio onena. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Ipar Euskal Herrikoak baino lehen, EAEko eta Nafarroako hainbat udaletako hizkuntza politikak aztertu zituen. Hamar puntuko erreferentzia hartu eta euskara normalizatzeko helburua betetzeko hizkuntza politiken egokitasuna behatzen du. Hamarrekoetik 2,93ko puntuazioa lortu du Hendaia, Ipar Euskal Herrian aztertutako herriko etxeen artean puntuazio altuena. Angelu geratu da azken postuan, 0,06ko puntuazioa lortuta.

BAHEA

Administrazioan euskararen erabilera kaskarra dela-eta ikerketa abiatuko duela jakinarazi du Jauraritzak. Tiraka blogean Martin Rezolak esanak dira ondokoak: “Blanca [Kultura sailburua]: jar ditzagun euskaraz lanean Kultura Sailean euskaldun diren zuzendari, zerbitzuburu eta goi-karguak; jar ditzagun euskaraz lanean euskara ikasten ari diren goi-kargu guztiak, ikasi dutena praktikatzeko aukera izan dezaten; eta, azkenik, euskaraz ez dakiten kargudunak, horiek pixka bat baztertu daitezela, traba egiten dute eta.

Hori da nik emango nizukeen gomendioa. Horiek direlako bidegileak edo, erdaraz boladan dagoen hitza erabiliz, ‘traktoreak’. Esaten da arraina burutik hasten dela kirasen, baina berdin esan liteke burutik hasten dela sendatzen ere. Egin zuen arteko laneko bilerak, batzordeak eta enparauak euskaraz, eta ikusiko duzu nola daramazuen arrastaka atzetik zuen menpeko langileria guztia”.

Txerra Rodriguezek esanak Garaigoikoa blogean: “Ikaskuntza beharrezkoa da, baina benetan erabakigarria jabeakuntza. Eta horretan ari nintzela pentsatzen, zer jabeakuntza bitarteko ditugun euskaldunok etorri zait burura. Eta bi motatakoak ditugula bururatu zait: naturalak eta artifizialak.

Naturalak dira familia, lagunartea, kontsumo joerak, auzo-herri-hurbileko zerbitzugintza... Baina, zoritxarrez, horiek ez dira Euskal Herriko herri eta auzo guztietan bermatuta, ezta familia guztietan ere. Eraginkorrenak dira eta merkeenak, baina ez dauden ez daude. Eta, horretarako, euskaldunok auzolanean sortu ditugu jabeakuntza bitarteko artifizialak. Adibidez, mintza-berba-solas lagunak. Edo haur eta gazteei begira, aisialdian sortutako milaka ekimendak. Edo euskaltegiek sortutako barne-eragileak. Baina nahikoak al dira? Eraginkorrak al dira?”.

Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN**Politikarien indemnizazioak**

Jada ari dira aldatzen euskal aldundietako eta udaletako kudeatzaile politikoak. Berriz ere azaleratu da badoazen politikarien indemnizazioaren kontua, bereziki udal handi eta foru aldundietan. Egoera ezagutzeko, hauxe da Gipuzkoako Foru Aldundiaren adibidea: ahaldun nagusiak 88.136 euro jasotzen ditu urtean. Kargua uztean, indemnizazio moduan 7.344,67 euro jasotzen ditu. Langabezian geratzen bada (12 hilabetez gehienez ere), 2.937,87 euro jasoko litzuke hilabeteen; beraz, jasoko lukeen diru kopuru maximoa 42.599,11 euro izango litzateke. Batzarkideek eta zuzendari orokorrek, 79.769 eta 72.245 euro kobratzen dute urtean, hurrenez hurren, eta 6.647,42 eta 6.020,42 euroko indemnizazioa jasoko dute, kasuaren arabera. Langabezian dauden bitartean (hauek ere 12 hilabetez gehienez ere), 2.658,97 eta 2.408,17 euro jasoko dituzte hilean; beraz, osotara 38.555,06 eta 34.918,46 euro lirateke. Ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiak indemnizazioetan 254.431,47 euro gastatuko ditu. Horiek guztiak langabezian geratuko balira, zifra 891.394 eurora igoko litzateke.

Egoera hori gainerako aldundietara eta udal handietara eramanez gero, bai eta EAEko eta Nafarroako gobernu eta parlamentuetara ere, kalkula liteke zein alimaleko xahuketa egiten zaion altxor publikoari. Aldiz, erakunde horietako langileek, Gipuzkoako Aldundikoek adibidez, haien lan kontratua amaitzen denean ez dute indemnizaziorako eskubiderik, eta hilean 1.087 eta 1.297 euro arteko langabeziagatik prestazioa baino ez dute kobratzen.

Lotsagarria eta eskandalagarria da horrelako lan diskriminazioa egoitea politikarien alde; langileei eskubide laboral eta sozialak murrizten zaizkie. Kudeatzaile politiko berriek, Donostiakoek eta Gipuzkoako Aldundikoek kasu, hasieratik ezarri beharko lukete, eredu izan nahi badute, politikoei ematen zaien prebenda eskandaluzkoak aldatuko dituen arau berri bat. Nahikoa da!

Juan Mari Arregi

Zein distantzia ote Auzitegi Nazionaletik Ajuria Enera?

EURI LEHORRA dokumentala ikusi duenak badaki ezker abertzalearen zati bat zertan aritu den azken urte luzeetan. Negoziazioa eta elkarriketa dira dokumentalaren ardatzak, eta dokumentalak argi uzten du ezker abertzalearen sektore bat horren atzean ibili dela luzaroan. Jakinda 2006ko Loiolako saioaren hastapenak Elgoibarko baserri batean direla, hamarkada bateko epeaz ari gara. Eta dokumental hori irentsi duenak, jakin badaki baita ere, hamarkada horretako urte luzeetan ezker abertzaleko sektore horrek nola egiten duen porrot elkarriketa eta negoziazioaren helburu horietan. Utz ditzagun arrazoiak eta bestelako azterketak eta zentra gertakizun objektiboetan: porrot egiten da eta listo.

Dokumentalaren hariari jarraituz, arrakastaren klabea Hegoafrikatik etorri zen: "Borroka armatua utzi behar duzue, bide politikoa murgildu eta negoziatu". Horren sinple, horren sakon. Aspalditik ezaguna eta errepikatua zena, baina gauza ezin zitekeen klabe horren barrunbeetara sartu gabe, argi ikusten da ezker abertzaleko sektore hori azkenean garaile ateratzen dela eta, behingoz, borroka armaturik gabeko borroka politikoa arete irekitzen direla ezker abertzalean. Hori guztia ezker abertzaleak aldebakarrez erabakia.

Arrakasta hori da Bateragune auzian zigortu nahi dena. Horregatik euskal gizartean ez dago auzi hau defenda dezakeen pertsona kabalik. Edo bai, hobeto esanda, badira Laura Garrido eta gisako popularrak, eta bestelako agindurik jaso arte horixe egingo dute, baina jakinik fitxa mugitzeko ordua ere gero eta gertuago dutela, udazken edo udaberriko kontua dela; beren polizi eraginkortasunean gogorturik, agian oraindik ohartu gabe dagoeneko Auzitegi Nazionalako



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

kaiolatik Arnaldo Otegi eta Rafa Diez bilakatu direla beren bizkarzainik eraginkorrenak.

Auzitegi Konstituzionalak irekitako ate berriaren logikak absolutzioa eskatzen du, baina Auzitegi Gorenaren logika zaharrak zigorra. Eta orain logika politikoa eta justizia gailenduko balira ere, Otegi eta ezker abertzaleko zuzendaritzaren dozenaka kidek udazkenean —seguruenik— egin beharko dio aurre Herriko tabernen auziari. Badirudi Estatuak aspaldi erabakia zuela Otegi nola hala espetxeratzea eta ez dirudi ezker abertzaleko liderrak ataka horretatik ateratzea samurra izango duenik.

Espainiak beti egin izan du argi espetxearen erabilera gatazka honetan, eta badu logikarik pentsatzeak honen azken txanpan ere hala egingo duela, bai ezker abertzalearen buruzagitzarekin eta baita gainerako euskal presoekin ere. Laster ikusiko dugu erabilera horren nondik norakoa, batez ere egungo —bake?— prozesuak aurrera egiten duen neurrian, euskal gizarteak presoan gaia mugitzea eskatuko duelako, eta PPK bere lehen kartak agertu beharko dituelako.

MARIANO RAXOI Moncloako hurrengo maizterra izango da itxura guztien arabera. Benetako mirariak hamarkadaz behin gertatzen dira eta PSOEk izan zuen berea Zapaterorekin. Markel Olanok ez zuen jau-regirik bizitzeko eta Martin Garitanok ere ez du izango: ez dut uste faltan botako dutenik gainera. Ez arrazoi pertsonalengatik, baina seguruenik Olanok faltan botako duena boterea da, Garitanok gustura hartuko duena. Desiragarria litza-teke argazkiko bien arteko beso lotzea protokoloa baino zerbait gehiago izatea. *Euri lehorra* dokumentalean gogorarazten den moduan, Irlandako bake prozesuaren oinarrietakoa Adams-Hume akordioa izan zen. Olano eta Garitano ez dira Adams eta Hume, jakina, baina akaso beren familietako te prestatzaileetakoak izan daitezke.

Ez legoke gaizki gogora ekartzeari Irlanda eta Hegoafrikako gatazketan Mandela eta Adams non ziren. Eta bai, badakit historia ez dela errepikatzen, baina aurrengo maiatzaren ondoren, dagoeneko ez da astakeria pentsatzea Otegiaren hurrengo jauzia Auzitegi Nazionaletik Ajuria Enerainokoa izan litekeela.

PELLO ZUBIRIA

Txetxeniako nork hil zuen Natalia Estemirova?

Martxoan estreinatu zuten *Qui a tué Natacha Estemirova* Genevako (Suitza) giza eskubideen zinemaldian; ekainaren 14an *France-2* telebistak erakutsi zuen. Kasualitatez, egun berean Moskuko auzitegi batek asketsi zuen Memorial elkarteko buruzagia: salatua zuen Estemirovaren hilketaren erruduna Txetxeniako presidente Ramzan Kadyrov dela.

RAMZAN KADYROV TXETXENIAKO presidenteari bost axola die epaileek, urrutikoak baldin badira deus ez. Vladimir Putin Errusiako lehen ministro eta Kadyroven babesle nagusiari auzitegieta paperek ez diote lorik galarazten. Horregatik pentsatu behar da ekainaren 1ean Vienan eta 14an Moskun juceek bi txetxeniar famaturen hilketez erabakitakoek dardararik ez diotela eragin.

Vienako auzitegian jokatzan zenaz informazioa NET HURBIL honek aurreratu zuen 2009ko udaberrian. Urtarrilean Vienan ezezagunek hila zuten Umar Israilov (Txetxenia, 1982), errusiarren kontrako gerrillari ibilia, preso erori ondoren armadari laguntzera behartua, azkenean familiarekin erdiko Europara ihes egitea lortu zuena. Israilovek Giza Eskubideen Europako Auzitegian salatu zuen Kadyrov presidentea bera izan zela atxilotu zutenean torturatu zutenetako bat.

Israilov etxera bere borondatez itzul zedin saiatu zen Kadyrov, mezulari berezia bidali zion mehatxu egiteko, eskatzeko erretira zezala salaketa. Azkenean, Vienako erdiguneko tiroka hil zuten gizona. Giza eskubideen alde borrokatzen den Memorial erakundeak ulertu duenez, "Israiloven hilketak ohar bortitza jakinarazi dio munduan barreiatutik dagoen Txetxeniako jendeari, adiera-

ziz Errusiatik kanpo babestuta egoiteak ez dituela salbatuko Txetxeniako botere egituren atzaparretatik".

Hiru gizon txetxeniar kondenatu dituzte Vienan, Ramzan Edilov bizi osorako espetxera, Suleiman Dadaev 19 urtera eta Turpal Ali Iesurkaev 16 urtera. Baina Austriako poliziaren ustez tiroak egin zituen Letxa Bogatirov libre dabil Groznin, Errusiako agintariek hura atxilotzeari uko eginik. Vienan ez dute lortu epaitzerik Shaa Turlaev ere, Kadyroven aholkularia eta Israilov hilko zuenarentzako hiru milioi dolarreko saria iragarri zuena. Austriako poliziak lortu zuen hiltzailearen hiru laguntzaile atxilotu eta epaiketaraino eramatea, ez ordea egilea bera eta pagatzailea.

Ekaineko beste epaiak Natalia Estemirovaren heriotza oroitarazi du, baina zeharka. Esplikatu dugu nola. Hilaren 14an, Moskuko epaile batek errugabe deklaratu zuen Oleg Orlov, Memorial erakundeko buruzagia. Memorial giza eskubideen defentsarako elkarteak 1980ko hamarkadan fundatu zuten, Andrei Sajarov en ekimenez, hasieran Sobiet Batasunean Joseph Stalinen garaian nozitutako zapalketak ikertu eta oroitarazteko; geroztik Errusiako erakunde errespetatuenetakoa da.

Komunalek lan handia egin du azken urteotan Kaukaso eskualdean eta zehazkiago Txetxenian, Dagesta-

Interneten Londresko txetxeniar diasporak (www.vaynahgb.com) jarrita daukan argazki handian ageri da Natalia edo Nataxa Estemirova, Grozniko kalean, zehaztu gabeko urte batean. Irudi txiki-koa da Ramzan Kadyrov Txetxeniako presidente gaztea, gerrillariak bonbaz Grozniko estadioan hil zuten Akhmad Kadyroven semea. Estemirova gizon armatu ezezagunek bahitu eta hil ondoren, asko baitziren munduan Kadyroven parte hartzea edo babesa salatzen zutenak, honek deklaratu zion irritati bati: "Zergatik hil behar nuen emakume bat inori axola ez zitzaiola? Ez zuen ohorerik, ez duintasunik eta ez lotsarik". Milène Sauloyk zuzendu duen *Qui a tué Natacha?* dokumentalak bildu ditu Estemirovaren irudi eta hitzak, kazetari frantsesak Txetxenian barrena hilketa argitzeko egindako elkarriketa eta ikerketek gain.

nen eta Inguxetian balizko terrorismoaren kontrako gerra dela eta agintariek burutu dituzten basakeriak isilpetik argitara ateratzen. Memorialekin egiten zuen lan Anna Politkovskaia kazetari asasinatuak.

Orain Moskun ebatzi dena Orloven kontra Kadyrov presidente txetxeniarrek aurkeztutako salaketa zen, alegia Orlovek gezurretan esan omen zuela bera zela, Kadyrov, Natalia *Nataxa* Estemirovaren hilketaren erantzule. Epaileak libre utzi du Orlov. Aldiz, honek eta Memorial erakundeak Txetxeniako zapaketa basatiaz eta Estemirovaren hilketa plazaratutako ikerlanari ez dio ezein epailek jarraipenik ematen, ez Groznin, ez Moskun.

Legerik gabeko Txetxenia

Natalia Estemirova kazetari eta giza eskubideen aldeko ekintzailea 2009ko uztailaren 15ean Grozni hiriburuan bahitu zuten etxeko atarian; ordu gutxiren bueltan Inguxetiako mugako errepide bazterrean azaldu zen, tiroz hila.

1958an Txetxenian sortua, historia ikasia zen eta gaztetatik kazetari-tza lanetan aritua. Txetxeniako lehen gerran (1994-96) alargun geratu zen, errusiarrei aurre egin zieten polizia txetxeniarretakoa izaki bere senarra. Bigarren gerra hasi zelarik, 1999an, gatazkak eragindako hilketa, tortura,



bahiketa eta bestelako demasiak aztertzen hasi zen, horretarako alaba Txetxeniatik urrun aitona-amonengana bidalita. 2000.etik Memorialentzako lan asko egin zituen, sarraskiak idatziz bezala argazkiz azaltzeko.

Oihartzun handia lortu zuen Estemirovak mundu osoan. Suedia-ko parlamentuaren saria eman zioten 2004an, Europako Alderdi Popularrarena 2005ean, Moskun hil berri zuten Anna Politkovskaiaren omenezko saria 2007an... Hain zuzen Estemirova elkarlan estuan aritua zen Politkovskaiarekin eta Stanislav Markelov abokatu gaztearekin, biak ere Moskun asasinatuak.

Milène Sauloyk aurkeztu berri duen *Qui a tué Natacha?* dokumentalean bilduta dago nola 2004an egin

zuen lehenbizikoz topo Estemirovak Kadyrovekin. Anna Politkovskaiari lagunduz joan zen Kadyrov elkarriketatzen honen jauregira. Antza denez, artean presidente ez zen Kadyrov gaztea berotu egin zen eztabaidan eta hasi zelarik Politkovskaiari mehatxu egiten, Estemirova jarri behar izan zen erdian, zartakoren bat emango ote zion beldurrez.

2007ko neguan, Valdimir Putinek Kadyrov Txetxeniako presidentea izendatu berritan, Estemirovari deitu zioten Groznin agintariekin martxan jarri nahi zuten giza eskubideen babeserako bulegoan lan egin zezan. Gutxi iraun zuen, 2008ko martxoan erakundeko arduradunen bilera batean sartu zen Kadyrov builaka, emakumeari aur-

pegiraturaz agintariei egindako kritikak bere azken kazetari lanetan, tartean Kadyrovek emakumeak behartzea buruan zapia eramatera. Hainbeste beldurtu ziren Memorialeko arduradunak, ezen eta hilabete batzuetarako Txetxeniatik kanpo bidali baitzuten Estemirova.

Gerrillarien kontrako borroka inolako araurik gabe burutzen dute agintariekin Txetxenian. Ekintzaileek eraso suizidak eta zibilen kontrako tiraketak ugaritu dituzten moduan, gobernuaren indarrek metodo guztiak dituzte libre sasitarrak itozteko, izan polizia eta armadako uniformedunak edo talde paramilitarrak. Mendekua, zigorra eta errepresaliak eguneroko ogia dira. Gerrillaren gurasoak hiltzen dituzte, senideen etxeak erre.

Uztailaren 7an, Rizvan Albekov eta honen seme Aziz bahitu zituzten gizon armatuek eta handik egun gutxitara haien sorterrri Akhintxu Borzoi herrixkara eraman zituzten: herriko jendea bildu eta denen aurrean armadunen buruetako batek galdetu zion aitari ea berak gerrillariei laguntzen zien. Honen burua makurtu zuen ezezka. Balazo batez zulatu zion burua.



Rizvan Azizen delitua ez zen gerrillariei laguntzea. 2000.ean anaia Vakhazi, artzain ari zela, soldaduek bahitu eta hil zuten mendian. Beste anaia batek, Alik, Giza Eskubideen Europako Auzitegian salatu zuen. Auzia irabazi baino lehen hil zen Ali kantzerrez. Agintariei aurre egitearen "errua" Rizvan anaiak pagatuko zuen bere biziarekin. 2009an.

Zortzi egun beranduago bahitu eta hil zuten Natalia Estemirova. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Abarkategikoak

Liburuetan laborariak eta hiritarrak eztabaidan agertzen ziren lehen, bizimolderik hoberena zein zen aztertzen, arraileria, burla eta batzuetan gaiztakeria ereinez. Halaz

Peru Abarka etxezain euskaradun bakartia aharratzen zen aioski Maixu Juan barbero kaletarrarekin Joan Mogelen 1802ko eleberrian, bai eta 1888an Olhetan behera jaisiten Piarres Adame trukulantea Elizanbururen lumapean. Baserritar izatearen ohorea, handitasuna, epikotasuna, zintzotasuna bermatzen zuten, idealizatua, euskalduntasuna eta fedea ardatz. Mendea beranduago nekazariak hirietara akuilatzen ziren beraien lurretan gosea hedatuz eta lanpostu finkoen hilabete-sari ustez mardulen argizaiola distiraraziz, hori guztia aitzinamenduaren edo progresoaren izenean. Hiriataratu laborari haurren besalde merkez garatu enpresek sortu makinen, onkailuen, isuri kimikoen eta demagun sukaldeetako altzarien aurreneko hartzaileak kanpainetakoak zirelakoaz oroitu gaitezela.

Igandeetan noiztenka, ni ere hiritar hutsa, anaiekin pataskatzen naiz. Haien irauteko nekeziak aditzen ditut, ene aterabide errazak eskaintzen, baina ez ditut sekula osoki konbentzitzen. Dagoeneko ez dute gehiago fedea, garbitasuna –bereziki neskena– edo lurrari josiak ibiltzearen erraldoitasuna aipatzen, baizik eta alorren emankortasun oparoa, errentagarritasun hotza, mozkinen prezio sakrifikatua, greziar arruntaren adineko erostahala. Hiztegia aldatu zaie. Bizimodua halaber, baserrian kokatu arren hiritarren pentsaera dutelako buru-zokoetan baltsari, gutizia eta sozial mailako aldarrikapen berdinak. Urrun gaude alabaina Piarres Arradoiek 1955ean *Kattalinen Gogoetak* obra laburrean nekazari gazteentzat urratzen zituen xendra moraletarik.

Kafearen orduan anaietarik batek erraten dit beti: zuek, hiritarrek, gure uztak zuzenean erosten bazenituzte hobekiago gintezke gu hemen. Baiki. Kopeta apaltzen dut, zizare pikatzaile deituriko haurri-deen hersturen errudun banintza bezala, ahalke, ezen jatekoa, edatekoa, egunerokoa oia hots, supermerkatuan eskuratzen bai-



DANI BLANCO

tut, ahalik merkeen. Hori dut ezin besteko kriterio. Langileak ez baitu, jakina, CAC40ko nagusiak bezainbat irabazten. Pobreziaren neurriaren azpian diharduen laboraria ez da ohartzen langileen eta langabeen egoeraren gordinaz bestela elkartasun haboro erakutsiko lieke naski. Aspaldikoa da hiritarra alfer huts gisa kontsideratzeko eta beharrean apalesteo baserritarren ohitura.

Hargatik anaiak arrazoia dute. Agian emaitzak bitartekorik gabe laborariari zuzenean eta pixka bat karioago hartuz modu batez segurtatuko liteke haien maila ekonomikoa. Presaka bizitzen gara, pozoia irensten dugula konturatzeke jada apailatu janari likitsak sabeleratuz eta taxa karbonikoaz axolatu gabe munduaren izkin urrutienetik



Hargatik anaiak arrazoia dute. Agian emaitzak bitartekorik gabe laborariari zuzenean eta pixka bat karioago hartuz modu batez segurtatu liteke haien maila ekonomikoa. Presaka bizitzen gara, pozoia irensten dugula konturatzeke jada apailatu janari likitsak sabeleratuz eta taxa karbonikoaz axolatu gabe munduaren izkin urrutienetik etorritakoak zareratuz




etorritakoak zareratuz. Ez dugu denborarik gainera zer eta nola hazten garen hausnartzeko lanetik dendetan zehar agudo etxeratzten garelarik. Eta galdera bat zintzilik: anaiak proposatzen didaten biologikoaren bidea industrialarena baino xahuago dea? Badakit mamu eta belarzida gutxi erabiltzen duela baina auzoek? Ikusten ditut pentzeetan barreiatzen alimaleko traktoreekin amerikarrek Vietnamen napalma aurtikitzen zuten eran, ausarki, osagarria –berena has-teko– zalantzan jartzeraino.

Debadioa hatsankatzen zaigu azkenean, zer edo zer egin dezakegularik peskizetan, Peru Abarkaren izpiritua hegaldabarela oraindik gure artean, bipil, ELBko Harlouxet zenarenaren antzera. ■

ASTE HONETAKO

zozketa



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1



Ekainberri

Ekain berri



3 harpidedunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2


Iruñeko Planetarioa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

3



Jorge Oteiza Fundazio Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza NAFARROA

www.museooteiza.org

4



Kherau munduan ortozik

5 CD opari

www.baga-biga.com

5



AZKEN IRABAZLEAK (2281. Argia)

BILBOKO KAFE ANTZOKIA

- Javier Duoandikoetxea (Arrigorriaga)

EKAIN BERRI

- Izelgor Jimenez Honrado (Elorrio)
- Gotzon Apaolaza Bernedo (Lasarte-Oria)
- Imanol Alvarez Gartzia (Bilbo)

TOLOSA INDOOR KARTING

- Jesus Mari Olaizola Lazkano (Zarautz)
- Ardatza Aldizkaria (Gasteiz)
- Jose Mari Ogando Rodriguez (Lekeitio)

JORGE OTEIZA FUNDAZIO MUSEOA

- M Angeles Azpiroz Harrizurieta (Barañain)
- Jone Santamaria Azpiri (Donostia)
- Mikel Garmendia Aizpuru (Bilbo)

UNE akustikoak CDa

- Josu Aldama Larena Bitoriano (Zuia)
- Blanca Beitia Bengoa (Gasteiz)
- Santurtziko Udal Euskaltegia (Santurtzi)
- Edume Lazkanoiturburu Manterola (Hondarribia)
- Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea